

AUZOA ETA HERRIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

2. ATAZAK

- A. ataza: Zenbat dakigu geure ingurukoei buruz?
- B. ataza: Txangoa antolatzen
- C. ataza: Nolakoa da geure ingurua?

3. MATERIAL OSAGARRIA

- A. Hauek bai buruhaustekak
- B. Besterik nahi?

4. ERANSKINAK

- I. Kontsulta-liburuak
- II. Gorbeiaiko parke naturala. IHESI, Euskal Herriko Gida. Josu Etxaniz. Argia.
- III. Consumer aldizkaria: parke naturalak
- IV. Aramaio herriaren deskribapenerako fitxa. EUSKAL HERRIA multimedia entziklopediatik hartua.
- V. Ikasleen laburpenak
- VI. Aramaio alkatearekin elkarrizketa. Euskadi Irratia. DB 204
- VII. Osatu gutuna
- VIII. Pertsonaia mitologikoen istorioak. "Leireren opor miresgarria" liburutik hartua

BIDEO-PASARTEA
<u>B ataza</u> 1.- 00.24.17

OHARRA: erreferentziako denbora da.

1. SARRERA

1.- IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Gure ingurua ezagutzea interesgarria ez ezik, oso baliagarria ere gerta daiteke: astebururako eta oporretarako plana prestatzeko, gure ohiturak eta kultura hobeto ezagutzeko, edo, besterik gabe, jakin-mina asetzeko.

Eskolak oso aintzat hartzen du alderdi hori, eta horrexegatik urtero lantzen da inguruari lotutako alderdiren bat: geografia fisiko eta politikoa, historia, demografia, gizartea... Hainbat lan egokitzen zaizkie haurrei inguruaren ezagutza sustatzeko eta sakontzeko, eta horretarako, besteak beste, ikasi behar izaten dute kontsulta-materialak erabiltzen, ideia nagusiak erazten, berreraiketak egiten eta planoak eta mapak interpretatzen.

Gurasoek lan horien aurrean hainbat zalantza izan dezakete, besteak beste, zeintzuk diren euskaraz dauden kontsulta-materialik egokienak, edo nola lagundu haurrei entziklopedietako informazioa euren lanetara egokitzen. Era horretako jarduerak dira, hain zuzen, atazetan bildurik, unitate honetan jorratuko ditugunak:

A atazan gurasoek aukera izango dute euren inguruari buruz dauden hainbat kontsulta-liburu ezagutzeko eta beraiek ezagutzen dituztenak besteei deskribatzeko. Seme-alaben irakasleak inkesta bat bidali die, ingurua ezagutzeko etxean nolako materialak dituzten aztertzeko eta, bidenabar, gaiari buruz duten interesa baloratzeko; lan hori aitzakia hartuta, kontsulta-material horiei gainbegiratu bat emango diegu. Gainera, ikasleak gaiari atxikitako oinarritzko lexikoa landu ahal izango du, jolas baten bidez.

B atazan inguruari buruzko informazio-iturriak erabiliko ditugu: aldizkari batetik jasotako testu bat, txangoak antolatzekeo liburu baten pasartea, entziklopedia multimedia batetik jasotako informazioa eta herri baten deskribapena egiten duen irratsaio bat. Kontua da haurrek txango bat proposatu eta zehaztu behar dutela lan batean, eta, horretarako, hainbat informazio-iturri ustiatu eta laburpen-lana egin beharko dutela. Ataza honetan zera bilatuko dugu funtsean:

- Batetik, irakurtzeari buruzko hainbat argumentu baloratzea eta nola irakurri erabakitzekeo irizpide batzuk aztertzea.
- Bigarrenik, testuak ulertzeko egin daitezkeen hainbat galdera-mota egiten ikastea.
- Hirugarrenik, laburpenak egiten trebatzea, sortu nahi dugun testuaren helburua kontuan hartuta.
- Azkenik, trebatzea eskuratzen duten informazioa modu egokian antolatzen, helburuen arabera.

Horrekin batera, aztertuko dugu nola lagundu geure haurrei lan hori bera egiten.

C atazan ikasleen inguruari buruz arituko gara, eta ahaleginduko gara zehazten zein izan daitezkeen informazio jakingarriena kanpotik etorritako haur batentzat. Haurrek parte hartuko dute truke-programa batean. Programa horren helburua da Euskal Herriko hainbat leku ezagutzea eta beste eskualdeetako haur euskaldunekin harremanak izatea. Era berean, gutun bat idatzi behar diote trukeko kideari, informazioa emanez. Gutun hori eta antzekoak nola idatzi aztertuko dugu, hain zuzen ere.

Ataza honetan zera bilatuko dugu funtsean:

- Batetik, gutunaren planifikazioa nola egin eta eginkizun horretan sor daitezkeen zalantzak aztertzea.
- Bestetik, testuak, eta, bereziki, gutunak idatzi ondoren, birpasa egiten trebatzea.

Hauek dira buruhausteak! atazan txangoen eta bidaien gaiarekin lotutako hainbat jolas matematiko egingo ditugu, gai honek aukera anitz ematen baitu era askotako jolasak egiteko eta berriak sortzeko. Honako alderdi hauek jorratuko ditugu:

- Mapak interpretatu: eguraldi mapak, ibilbidea zehazteko mapak.
- Planak antolatzekeo baliagarriak izan daitezkeen taulak osatu.
- Esaldiak emanda, logika-taulak bete.
- Oporrak pasatzeko hainbat egoitzaren arteko konparaketak egin: prezioa, hornidura... eta egoitza horiek mapan kokatu.
- Hainbat neurri eta txanponen arteko eragiketa matematikoak.

Besterik nahi? atazan, azkenik, bidaia miragarri bat asmatuko dugu. Ipuinaren protagonistak geure haurrak izango dira; bidaian zehar euskal mitologiaren hainbat pertsonaiekin egingo dute topo eta... auskalo nolako gorabeherak biziko dituzten!

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena.



A. ATAZA: ZENBAT DAKIGU GURE INGURUKOEI BURUZ?

- Gutun bat ulertu, eta inkesta bati erantzun.
- Iritziak trukatu, eta zailtasunak aurreikusi.
- Kontsultarako materialen deskribapena edo iruzkin laburrak ulertu, eta izenburuarekin lotu.
- Nork bere etxean dituen kontsulta-materialen fitxa osatu, eta taldean aurkeztu.
- Geografia eta pertsonaia historikoak oinarri dituen jolasa prestatu, jokatu eta horretaz hitz egin.

MINTZ/IRAK



B. ATAZA: TXANGOIA ANTOLATZEN

- Irakurtzeari buruzko hainbat argumentu ulertu eta aztertu.
- CONSUMER aldizkariko parke naturalei buruzko artikulua irakurri, eta hainbat galdera egin, ulermen-maila baloratzeko eta informazio nagusia bereizteko.
- Ingurua deskribatzeko hiztegia landu, hitza definizioari lotuz. Artikuluaren hitz gakoak identifikatu.
- IHESI gidatik aukeratutako zati bat irakurri, eta haurrek egindako laburpenak irakaslearen balorazioari lotu.
- Laburpenak egiteko aholku batzuk bildu, eta testuaren laburpena idatzi, aholku horien arabera.
- EUSKAL HERRIA MULTIMEDIA materiala oinarri egin behar duten lanaren aurrean seme-alabek izan ditzaketen zalantza eta arazoei buruz mintzatu, eta aholkuak eman.
- Herrien deskribapena egiteko egiturak konparatu, eta, helburuaren arabera, egokiena aukeratu.
- Haurrak egitura zehaztean egin dituen hutsegiteak adierazi, eta eskema berregin.

IRAK/MINTZ/IDAZ/ENTZ



C. ATAZA: NOLAKOA DA GEURE INGURUA?

- Haurren truke-programen gainean eztabaidatu, eta esperientziak trukatu.
- Haurrak idatzi behar duen gutuna prestatzen laguntzeko galdera-zerrenda egin.
- Irakasleak haurrari eman dizkion aholku/instrukzio-fitxak interpretatu, eta berauek erabiltzeko gomendioak formulatu.
- Haurrak egindako gutuna osatu, ikasleen herriaren datuak txertatuz.
- Gutuna birpasatzeko fitxa osatu emandako irizpideak sailkatuz, eta eurek idatzitakoa errepasatu eta baloratu.

IRAK/MINTZ/IDAZ



MATERIAL OSAGARRIA

A. HAUEK DIRA BURUHAUSTEAK!

- Eguraldi mapa interpretatu, azalpenak ulertu, temperaturak asmatu lojika-taula batean eta antzeko jokuren bat asmatu.
- Euskal Herriko mapa batean dagoen ibilbidea taulara pasatu, eta antzekoa egin Aste Santurako planarekin.
- Herri baten planoak interpretatu, eta antzeko bat egin, euren herria edo ingurukoak hartuta.
- Hotel, apartamendu eta kanpinen inguruko informazioa jaso, eta taula konparatiboa atera. Egoera jakin baten aurrean gastatuko denaren kalkulua egin. Antzeko egoera asmatu, bidai agentziei bisita eginez, adibidez.
- Britainia Handian erabiltzen dituzten neurriak hemengoekin konparatzeko eragiketa matematikoak egin, eta libera eurotara aldatu. Ondoren, euroa pezetarekin konparatzeko taula osatu.
- PIRATEKIN MATEMATIKA MUNDUAN jolas multimedialak gainbegiratu, eta antzeko jolasak pentsatu/egin.

IRAK/MINTZ



MATERIAL OSAGARRIA

B. BESTERIK NAHI?

- Ezagutzen dituzten pertsonaia mitologikoak zerrendatu.
- Pertsonaia mitologiko hainbaten kontraerak irakurri eta kontatu, besteek zein pertsonaiari dagozkion asma dezaten.
- Ipuin baten gidoia asmatu.

IRAK/MINTZ

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELURU OROKORRAK

- Hurrei orientazioak ematea, inguruko gaien gaineko eskolako lanak egiteko; batez ere, informazio entziklopedikoa oinarri dutenean.
- Kontsultarako eta Euskal Herriaren ezagutza zabaltzeko euskaraz dauden hainbat material aurkeztu eta erabiltzea.

AZPIGAIK

- Material entziklopedikoa: ezaugarriak eta baliagarritasuna. (A) (B)
- Inguruaren ezagutza bultzatzeko ekintzak, kanpoko irteerak. (A) (MO-1)
- Geografia fisikoari buruz eta pertsonaia historikoei buruz dugun ezagutza baloratu. (A)
- Parke naturalen ezaugarriak eta mugak. (B)
- Gorbeiaiko parke naturalaren eta Aramaioren ezaugarriak. (B)
- Ikasleak bizi diren herrien eta inguruko ezaugarriak. (C)
- Hurren artean egiten diren truke-programak. (C)
- Eguraldia. (MO-1)
- Oporrak eta oporretara joateak dakartzan gastuak (MO-1)
- Dirua, euroa. (MO-1)
- Jolas matematikoak eta beren balioak. (MO-1)
- Mitologia Euskal Herrian. (MO-2)

HIZTEGIA

- **Entziklopediak:** liburuxka, liburuki, ale, atal, sarrera, adiera, irudiak, kartografia, aurkibidea, edukia...
- **Ingurunea:** eskualdea, udalerria, mendatea, iturburua, saihebidia, bidezidorra, mendizerra...
- **Eguraldia:** tenperatura, eguzkitsu, goibel, estalia, zaparrada, erauntsia, langarra, ekaitza, leuna...
- **Oporrak:** bidaiak, prestakuntza, aurrekontua, pertsonako prezioa, bidai agentzia, garraioa, txangoa...
- **Mapak, planoak:** jo, pasa, joan, zuzendu, iritsi, heldu, igaro, abiatu, ezkerretara, aurrera, zuzen-zuzen, aurrez aurre, segidan...
- **Dirua, euroa:** dirua aldatzea, kontuak atera, kalkuluak egin, garestitu, prezioak biribildu, iruzurra, bat egin, erraztu...
- **Mitologia:** sorginak, lamiak, aztiak, begibakarra...

ELKARRERAGINA

- Esperientziak eta jokabideak azaldu. (A) (B) (C)
- Ikaskideek aurreikusitako zailtasunak gainditzeko aholkuak eman eta proposamenak egin. (A) (B) (C)
- Besteen lanak orrazteko proposamenak egin, emandako irizpideen arabera. (B) (C)
- Mapak eta planoak aztertu eta interpretatu. (B) (MO-1)
- Hainbat jolas matematiko egiteko jarraibideak eman ikaskideei, jolasa egin dezaten. (A) (MO-1)
- Inkesta batean emandako erantzunak alderatu, eta kontsulta-liburuen eta antzeko baliabideen beharraz eta balioaz eztabaidatu. (A)
- Azaldu taldekideei hainbat material entziklopedikoren edo kontsulta-libururen ezaugarriak. (A)
- Ikaskideei bidaiak edota txangoak egiteko planak aurkeztu, ibilbideak proposatu. (MO-1)
- Azaldu laburpenak eta azalpenak egiteko kontuan hartu beharrekoa, hurrei egingo lieketen moduan. (B)
- Irakurritako testu bati buruzko galderak egin, esanahi literala eta inferentziala ateratzeko modukoak, taldekideekin trukatu eta erantzuna bilatu. (B)
- Testuan egindako azpimarrak trukatu eta baloratu. (B)
- Igarkizunak eta buruketak ebatzi; ebazpidea azaldu eta berriak proposatu. (MO-1)
- Eztabaidatu hainbat irakurketa-lan gidatzeko irizpideen gainean, eta egokienak hautatu. (B)

- Eztabaidatu gutun bat gidatzeko irizpideei buruz, eta egokienak hautatu. (C)
- Deskribapena eta narrazioa/instrukzioa jasoko dituzten artikulua idazteko irizpideak zehaztu. (C)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Herri baten deskribapena entzun eta egitura nagusia ulertu. (B)
- Entzundako/irakurritako instrukzioei jarraiki, ibilbidea planoan seinalatu. (B) (MO-1)
- Gai baten inguruko aurrezagutzak gogora ekarri. (A)
- Ideiak antolatzeari buruzko aurrezagutzak gogora ekarri. (B) (C)
- Hainbat fitxa irakurri eta bakoitzari dagokion izenburua jarri. (A)
- Liburuak gainbegiratu eta ezaugarri nagusiak fitxa batean bildu. (A)
- Instrukzioak ordenatu. (A)
- Aholkuak edo gai jakin bati lotutako ideiak tauletan ordenatu. (B) (C)
- Testuko hitz-gakoak identifikatu eta definizioari lotu. (B)
- Testu bat irakurri eta laburpena egiteko galdera egokiak egin eta hautatu. (B)
- Testuan egindako azpimarrak baloratu. (B)
- Testu bat irakurrita, zenbait datu zuzenak diren ala ez erabaki. (MO-1)
- Internet-eko orriak erabili, informazioa erauzteko/ateratzeko. (B)
- Ezagutzen dituzten material entziklopedikoen eta antzekoen aurkezpena egin. (A)
- Haurren balizko galderei erantzun. (B) (C)
- Hainbat gairen gaineko iritziak eta balorazioak egin taldean. (A) (B) (MO-1)
- Planak ahoz aurkeztu. (B) (MO-1)
- Ibilbide edo plano baten ahozko azalpena egin. (MO-1)
- Jolas baten jarraibideak ahoz azaldu. (A) (MO-1)
- Laburpenaren helburua kontuan hartuta, laburpena idazteko jokabidea erabaki. (B)
- Hainbat laburpen baloratu, emandako irizpideen arabera. (B)
- Testu zati bat laburtu. (B)
- Aholku-zerrendak laburbildu idatziz. (B) (C)
- Helburua kontuan hartuta, egitura egokiena hautatu. (B) (C)
- Gutunak idazteko irizpideak ulertu, euren balioaz hausnartu eta gutuna osatu. (C)
- Idatzizko testuak erreparatzeko irizpideak taulan ordenatu, eta testuak taula horren arabera baloratu/zuzendu. (C)
- Laburpen eta gutun jakin bat egiteko ideiak sailkatu eta antolatu. (B) (C)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- **HIZTEGIA:** idatzizko materialen deskribapena (A)
lekuen deskribapena (B) (C)
eguraldia (MO-1)
- **DEKLINABIDEA:** mugagabea/mugatua (A) (B)
herri-izenen deklinabidea (MO-1)
kokapena adierazteko deklinabide kasuak, postposizioak (B) (C) (MO-1)
- **GALDEGAIA:** galdera-erantzunen jokoan (A) (B)
- **INSTRUKZIOA:** arauak (A)
ibilbideak seinalatu (MO-1)
planak kronologikoki azaldu (C) (MO-1)
- **DESKRIBAPENA:** ibilbideen deskribapena: alderdi objektiboak eta subjektiboak (B) (MO-1)
herrien deskribapena (B) (C)
- **ALDERAKETA ETA KONPARAZIOA** (MO-1)

2. ATAZAK

A ATAZA: ZENBAT DAKIGU GEURE INGURUKOEI BURUZ? (195')

Helburu orokorra

- Kontsultarako eta bidaiak antolatzeko dauden materialen inguruko xehetasunak eta iritziak ahoz ematea.

Helburu zehatzak

- Inguruaren ezagutzeari buruz dugun jarrera argitzea.
- Inguruarekin lotuta izan ditzakegun zailtasunen aurrean proposamenak egitea.
- Euskarazko hainbat kontsultarako materiala ezagutu eta baloratzea.
- Inguruari eta pertsonaia ospetsuei buruzko aurrezagutzak gogora ekartzea eta ezagutza berriak eskaintzea.

Zertan den

- Inkesta bati erantzun, eta taldean baloratu nolako garrantzia ematen dioten inguruaren ezagutzari, eta zehaztu zeintzuk diren erabiltzen dituzten baliabideak.
- Hainbat materialen fitxak edota iruzkinak irakurri eta izenburuarekin lotu. Antzeko fitxak sortu ezagutzen ditugun materialekin.
- Urkatuaren jokoan aritzeko, geografiari eta pertsonaia ospetsuei buruzko fitxak prestatu; jokoaren instrukzioak ordenatu, eta partidatxo bat jolastu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (5')

- Gutuna irakurri aurretik, errepara diezaiotela inkestari; eztabaida dezatela zer dela eta bidali duen irakasleak inkesta hori.

Ataza: inkesta bati erantzun eta emaitzak kalkulatu (15')

- Gutuna irakurri, eta inkestari erantzun.

2001eko urriaren 26a

Guraso horiek:

Dakizuen bezala, Lehen Hezkuntzan helburu nagusienetako bat da haurrek inguruan dutena ezagutzea: inguru fisiko eta politikoa, historia, artea, etab.

Guk, eskolan, hainbat eginkizun antolatzen ditugu horri begira; baina umeek eskolaz kanpo ere aritu behar dute. Izan ere, eskolak bere mugak ditu, eta familiaren ekarpena ere oso garrantzitsua da.

Eskolaz kanpo umeek egin ditzaketen ekintzak ondo antolatzeko, jakin behar dugu nolako materialak dituzuen etxean. Horretarako, ohar honekin batera doan inkesta prestatu dugu.

Inkesta ahalik eta azkarren bete eta tutoreei eman, aurtengo ekintzen plana lehenbailehen egiteko.

Zalantzarik baduzue, jo geuregana.

Mila esker.

INKESTA			
	BAI	EZ	BESTERIK?
1. Etxean baditugu entziklopedia edota kontsultarako baliabideak:	ð	ð	
- Gaurkotuak	ð	ð	
- Euskaraz	ð	ð	
- Multimediak	ð	ð	
- Gizarte irakasgairako lagungarriak	ð	ð	
2. Ez dugu lehen aipatutako modukorik, baina erosteko prest gaude.	ð	ð	
3. Erosteko prest bai, baina ez dakigu zer erosi.	ð	ð	
4. Liburutegiak baditugu inguruan.	ð	ð	
5. Liburutegietara hurrekin joateko ohitura badugu.	ð	ð	
6. Asteburu, opor eta abarretan joaten gara inguruak ezagutzera:	ð	ð	
- Mendira	ð	ð	
- Hondartzara	ð	ð	
- Herrietara	ð	ð	
7. Joaten garenean, bertako interesguneetara hurbildu eta ezagutzeko ahalegina egiten dugu.	ð	ð	
8. Eskolatik txango bereziak antolatzen badira aste bururako, prest gaude irteera horietan parte hartzeko beste guraso batzuekin elkarlanean.	ð	ð	
9. Parte hartzeko, eta garraio-arazoetan laguntzeko; adibidez, autoa eramanez.	ð	ð	
10. Gurasooi laguntza ematea nahi genuke, hemen azaldu diren zenbait aukera gauzatu/garatzeko.	ð	ð	

- Taldean, bakoitzak erantzundakoa argitu, eta gainontzekoen erantzunekin konparatu.

Feedbacka (10')

- Inkestaren balorazio zehatzagoa egiteko, erantzunen portzentajeak atera ditzakete. Hiru taldetan banatuta, BAI/EZ/BESTERIKen proportzioa atera, eta emaitzak beste taldekoei jakinaraz diezazkiekete.

GALDERA	BAI		EZ		BESTERIK	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1						
2						
3						

4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						

Atazaostea (5')

- Eztabaidatu inkestan aipatutakoen garrantzia/balioa, eta hitz egin ingurua ezagutzeari buruz duten iritziaz.

2

Atazaurrea (10')

- Taldeka jarrita, hitz egin dezatela emandako puntuei buruz.

- Zer iruditzen zaizue familia inplikatzeko inguruaren ezagutza bultzatzeko ekintzetan? Parte hartzen al duzue eskolak antolatzen dituen kanpoko ekintzetan?
- Zeuen seme-alabek antzeko ekintzak egin behar izaten al dituzte? Aipatu gogoratzen dituzuenak.
- Zer eskatuko zenioke eskolari zentzu honetan? Materialak, berauek erosteko laguntzak, horrelako ekitaldi gehiago/gutxiago antolatzea...

Ataza: hurrei laguntzeko zailtasunak aurreikusitako eta zerrendatu (10')

- Zailtasunak zerrendatu eta arazoak gainditzeko proposamenak egin behar dituzte. Batez ere, gai honetan duten esperientziaz baliatuko dira, eta gehienbat iradokizunak egingo dituzte.

Nolako zailtasunak izan ditzaket haurrari laguntzeko aipatutakoen moduko zereginetan?

- Nik neuk ere ez dut ingurua ongi ezagutzen.
- Entziklopediarik ez dut etxean, eta, oraingoz, ez dut erosteko asmorik.
-

Feedbacka (10')

- Zerrendak trukatu. Elkarri proposamenak egin, aurreikusitako zailtasunei irtenbideren bat emateko.

3

Atazaurrea (5')

- Emandako materialen zerrenda irakur dezatela. Adieraz dezatela bertan jasotako materialak ezagutzen dituzten ala ez.

- EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopedia. Elhuyar.**
- Euskal Hiztegi Entziklopedikoa. Klaudio Harluxet Fundazioa.**
- Munduko Atlasa. Klaudio Harluxet Fundazioa.**

- | |
|---|
| <p>4. Euskal Kultura Gaur. J.M. Torrealdai. Jakin.
 5. BERTAN. Gipuzkoako Foru Aldundia.
 6. IHESI, Euskal Herriko Gida. Josu Etxaniz. Argia.</p> |
|---|

Ataza: zenbait kontsulta-materialen fitxak ulertu eta izenburuekin lotu (30')

- Izenburuak eta fitxak gainetik irakurri, eta entziklopediekin eta antzekoekin lotutako lexikoa eta taldekideen artean argitu, testuinguruari erreparatuta (adibidez: liburuki, garaikidea, aleka...).
- Ondoren, fitxak izenburuekin lotu behar dituzte (l. eranskina).

ERANTZUNA:

MATERIALAREN IZENA	FITXA
1. EUSKAL HERRIA, multimedia entziklopedia. Elhuyar.	D – formatua: CD-ROMa
2. Euskal Hiztegi Entziklopedikoa. Klaudio Harluxet fundazioa.	A – 8 liburuki...
3. Munduko Atlasa. Klaudio Harluxet fundazioa.	E – mapa fisiko-politiko eta estatistika-taulez itxuratua
4. Euskal Kultura Gaur. J.M. Torrealdai. Jakin.	B – idazleak, liburugintza
5. BERTAN. Gipuzkoako Foru Aldundia	C – Kultura, Euskara eta Kirol Departamentuak argitaratu ditu
6. IHESI, Euskal Herriko gida. Argia.	F – hainbat txango egiteko

- Emandako erduei jarraiki, ezagutzen dituzten beste material batzuen fitxak osa ditzatela, ondoren, taldearen aurrean azaltzeko. Eginkizun hori hainbat modutara egin daiteke: zeuk beste hainbat material beraien eskura jarriz, beraien etxean duten materiala baliatuz (hurrengo saio baterako fitxa bete eta materiala bera ere erakusteko ekartzea eska diezaiekezu), edo eskura egon daitekeen liburutegiren batera bisita eginez (hainbatetan bisita gidatuak ere antolatzeke ohitura ere badute).
- Fitxak osatzeko liburuan duten eredua balia dezatela:

Zein izen du?	
Nork argitaratu du? Noiz?	
Zer da?	
Zenbat alek osatzen dute?	
Zein da bere edukia?	
Erabilerraza al da?	
Haurrei interesgarria irudituko ote zaie?	
Zein adinetatik aurrera?	
Eta zuei?	
Non edo nola lor daiteke?	
Zenbat balioko du?	
...	

Feedbacka (15')

- Taldearen aurrean egin dituzten azalpenak baloratu, batez ere, komunikagarritasunari erreparatuz (argitasuna, zehaztasuna, jarioa...).

4

Atazaurrea (5-10')

- Erakutsi EUSKAL HERRIA Multimedia Entziklopediaren azala (ikasleek liburuaren 18. orrialdean dute). Bertan ikusi/irakurritakoaren arabera, zerrenda ditzatela entziklopediaren eduki-motak.
- Norbaitek etxean badu, edota erabili izan badu, adierazi dezala zer iruditzen zaion.

Ataza: Euskal Herriko geografia eta pertsonaia historikoen inguruko jolas bat egin (45-60')

- EUSKAL HERRIA, multimedia entziklopedia eskuragarri izanez gero, bertan dauden jolasak proba ditzatela, eta baloratu ea gustagarriak diren beraientzat edota beren seme-alabentzat.
- Ondoren, hiru taldetan antolatuta, jokorako fitxak egingo dituzte. Talde bakoitzean multzo bakoitzeko fitxa bana prestatu behar dute, ereduari jarraiki:

GEOGRAFI FITXAK	PERTSONAIA HISTORIKOEN FITXAK
<p>Izena: KAKUETA</p> <p>Zer da? Arroila.</p> <p>Zein herrialdetakoa? Zuberoakoa.</p> <p>Zein eskualdetakoa? Pirinioetakoa.</p> <p>Besterik: Uhaitza ibaiak zeharkatzen duen haizpitartea da, 350 metrorainoko altuera.</p>	<p>Izen-abizenak: AITA VILLASANTE</p> <p>Nongoa da? Gernikan jaioa, Arantzazun bizi izan da.</p> <p>Zein arlotakoa da? Euskara.</p> <p>Zein da bere ekarpen garrantzizkoena? Euskararen eta euskal literaturaren azterketa.</p> <p>Besterik: Euskaltzaindiko lehendakaria 1970-88an, euskara batua bultzatu zen garaian.</p>

- Horretarako, erabil ditzatela eskuartean dituzten kontsultarako materialak . Bide batez, apunta dezatela fitxak egitean aurkitzen duten lexiko garrantzitsua.
- Jolasten hasi aurretik, hiztegi zerrenda bateratu bat egingo dute. Zerrenda antola dezatela.
- Halaber, jokoaren arauak ordena ditzatela jolasten hasi aurretik.

- () Partidak irauten duen bitartean, 4 pista eska daitezke guztira, baina pista bakoitzeko puntu bat kenduko da.
- () 0 puntura lehen iristen denak galduko du jokoa.
- () Esandako letra ez balego, urkamendia marrazten hasiko gara. Marrazkia bost urratsetan osatuko dugu.
- () Aurkakoari zenbat letrako hitza asmatu behar duen esan, eta, gero, berak letra bat aipatu behar du; hitzak letra hori baldin badu, hitzaren zein tokitan jarri esango diogu. Horrela jarraituko du letra guztiekin banan-banan. Bost aukera izango ditu, izena asmatzeko.
- () Jokoa 40 punturekin hasiko da; esan bezala, partida bakoitzean agortutako pisten arabera, puntuak kentzen joango dira (0, 1, 2, 3 edo 4), eta, partida galtzen bada (urkatu), 5 puntu gehiago galduko dira.

- Jolasa egin dezatela, fitxak erabiliz.

Feedbacka (5')

- Jokatu ondoren, hitz egin dezatela beraien artean liburuan dituzten galderari jarraituz:
 - **Zer iritzi duzue horrelako jokoei buruz?**
 - **Gure seme-alabentzat aproposak ote dira?**
 - **Interesatuko ote zaie horrelakorik?**
 - **Ezagutzen al duzue antzeko besterik?**

Gramatika (15')

- Ataza honetan oso maiz agertzen dira galdera-erantzunak. Gogorazi mugagabearen erabilera galderetan eta galdegaiak esaldiaren ordenan duen pisua, batez ere, egin dituzten hutsegiteetan oinarrituta.
- Gainbegiratu fitxetan azaldutako galderak eta bilatu mugagabea duten galderak. Horiek oinarri, mugagabearen forma birpasa dezakete:

"Zenbat aleK osatzen dute?"

"Zein adineTATIK aurrera?"

...

Helburu orokorra

- Gure inguruari buruzko hainbat testu (parke nazionalen inguruko azalpenak, hainbat lekuren deskribapena eta zenbait pertsonaia historikoren ibilbidea) laburbiltzea, estrategia desberdinez baliatuta.

Helburu zehatzak

- Hurrek hainbat testu-mota (beraizentzat pentsatuak ez daudenak) ulertzeko izango duten zailtasuna aurreikustea.
- Ideia-zerrendak laburbiltzea pasarte laburretan.
- Testuetako ideia nagusiak eta xeheak erazteko/bereizteko galderak formulatzea, haurrari testu desberdinak ulertzen eta laburtzen laguntzeko.
- Haurrari helburuaren arabera laburpenak egiten laguntzea, alderdi garrantzitsuei erreparatuta.
- Haurrari testuetako ideiak hautatzeko eta egitura nagusian txertatzeko irizpideak ematea.

Zertan den

- Aldizkari batean argitaratutako analisisan oinarrituta, hainbat galdera egin (literalak eta inferentziak) haurrak noraino ulertu duen ikusteko eta ideia nagusiak aukeratzen laguntzeko.
- Parke nazional baten deskribapenaren laburpena egin (zatika), lanaren helburuak kontuan hartuta.
- Herri baten deskribapena (historia, orografia...) azaldu, ideiak egitura jakinean txertatuz.

PROZEDURA:**1****Atazaurrea (5')**

- Lehenik eta behin, hurrek eskolan egingo duten lanaren ezaugarriak irakur ditzatela. Era berean, hitz egin dezatela honako puntu hauen gainean:

- Ohikoak al dira era honetako lanak? Egin behar izan al dute inoiz zuen seme-alabek gida turistikorik, txango baten plangintzaren bat, euren herriaren inguruko lan monografikoren bat...?
- Gustura ikusi al dituzue lan horretan? Inoiz aritu ez badira, uste duzue interesgarriak gertatzen ahal zaizkiela horrelako lanak?

Ataza: hainbat informazio-iturri gainbegiratu eta aztertu (15')

- Hurrek Gorbeiaiko parke naturalari buruzko lana egitea erabaki dute
- Talde bakoitzak azter ditzala irakasleak hurrei eskaini dizkien informazio-iturriak (IHESI gida —II. eranskina—, CONSUMER aldizkaria —III. eranskina— eta EUSKAL HERRIA multimedia entziklopedia —IV. eranskina—). EUSKAL HERRIA entziklopedia ezaguna badute, bi taldetan banatzea nahikoa izango da.
- Elkarri egin diezaiotela informazio-iturri horien aurkezpena. Adieraz dezatela zer iruditu zaizkien.

Feedbacka (5')

- Elkarri galderak egin diezazkiotela, xehetasun gehiago ezagutzeko.

Atazaostea (10')

- Taldeka jarrita, irakasleak haurrari eskuratu dizkion artikulua gainbegiratu dituzte, eta, era berean, adieraziko dute zer dakiten gai horiei buruz.

2

Atazaurrea (10')

- Errepara diezaietela irakurri beharreko lehenengo testuaren ezaugarriei. Aurreikus dezatela nolako zailtasuna izango duten hurrek testu hori irakurri eta ulertzeko.

Ataza: ideia-zerrendak laburbildu (15')

- Ikasleen liburuan ozenki edo bakarka irakurtzearen inguruko argudioak daude nahasian (Iturria: "Función del texto escrito en la construcción de conocimientos y en el desarrollo de habilidades", A. Prat, M. Izquierdo, HABLAR Y ESCRIBIR PARA APRENDER liburutik, 90. or., J. Jorba, I. Gómez, A. Prat; SINTESIS, 2000). Taldeka jarrita, antola ditzatela ideiak taulan.

ERANTZUNA

OZENKI IRAKURRI GURASOAREKIN	BAKARKA IRAKURRI
<ul style="list-style-type: none">• Zentzuaren araberako doinua ematen ikasten du.• Dakiena erabiltzen du, testua interpretatzeko.• Komunikazioa eta eztabaida ahalbideratzen ditu.• Ulertzen laguntzeko zenbait ariketa proposatuko dizkiogu arian-arian.• Haurrak irakurtzeko egiten duen prozesua balora daiteke.• Gurasoaren parte-hartzea errazten du.	<ul style="list-style-type: none">• Bere erritmoan irakurriko du.• Beste testuinguru batzuetan, beste testu batzuekin ikasi eta ulertu dituen estrategiak praktikara eramaten ditu.• Interpretatzean izan dituen erroreak errazago harrapatzen dira; bere mugak antzemateko egokiagoa.

- Ondoren, zerrendatutako argumentuak pasarte bitan laburbil ditzatela. Ozenki irakurtzearen aldeko argudioak dituzte adibide gisa eta bakarka irakurtzearen aldekoak bildu behar dituzte. Bestalde, gogoan izan adituen artean ez dagoela adostasunik gai honen inguruan; izan ere, ematen du denoi ez digula mesede berbera egiten ozenki/isilpean irakurtzeak. Hori dela eta, ez dirudi komenigarria erantzun itxi bat ematea gai honen inguruan. Egokiago dirudi ataza hau esperientzia trukaketarako erabiltzea: beren seme-alabekin zer egiten duten eta noiz adierazteko, etab.

Feedbacka (10')

- Ikasleek idatzitako laburpenak irakurriko dizkiete taldekideei, eta denon artean egokiena aukeratuko dute.


Atazaostea (5')

- Taldeka jarrita, adieraz dezatela, beren haurra ezagututa eta testua irakurrita, eurek nola irakurraraziko lioketen CONSUMER aldizkariko testua: ozenki ala isilpean, eta zergatik.

Ataza: testuetako ideia nagusiak eta xeheak erazteko galderak egitea (30')

- Testua irakurri ondoren, arazo bat dugu: nola ziurtatu haurrak ongi ulertu duela? Taldean jarrita, zerrenda ditzatela aukeran dauden moduak.
- Aukeretako bat galderak egitea da, bai hitzez hitzekoak eta bai inferentziak egitekoak. Banaka, koka ditzatela adibideak diagramako dagokien adarrean.

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none">•<ul style="list-style-type: none">A. Zer hobetu beharko litzateke bisitatutako parke naturaletan?B. Zer dela eta dira heziketarako egokiak parke naturalak? Ezagutzen al duzu baten bat? |
|--|



- Taldeka, presta ditzatela CONSUMER aldizkariko artikulua irakurketa gidatzeko hiruna galdera; truka ditzatela beste taldekoekin. Aurki ditzatela testuan jasotako galderen erantzunak.

Feedbacka (5')

- Adierazi egokitutako galderak zer iruditu zaizkien, eta egokiak izan daitezkeen haurrentzat.

Atazaostea (15')

- Irakur dezatela "Galdetu bai, baina nola galdetu" izeneko atala.

GALDETU BAI, BAINA NOLA GALDETU?
Haurrei oso lagungarri zaizkie geure galderak; batez ere, testuak zailak direnean. Baina kontuan hartu behar dugu galdetzeko era asko dagoela eta galdera guztiak ez direla berdinak. Tentuz ibili!

- Taldeka jarrita, egin dezatela haurrak azalpenean gogoan izan beharreko puntuen zerrenda galderak eginez. Kontuan izan behar dute haurrak ezin izango duela buruan bospasei ideia baino gehiago gorde.
- Aldera ditzatela zerrendak eta egiaztatu zenbateraino datozen bat.
- Zehaztu dezatela aukeratu dituzten galdera gehienak nolakoak diren: literalak edo inferentziakoak.
- Adieraz dezatela ea normalean galdera-mota desberdinak egiten dizkieten haurrei eta ea horrek nolako laguntza dakarkien (Gai honen inguruko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, irakurri arestian aipatutako "Función del texto escrito en la construcción de conocimientos y en el desarrollo de habilidades")

Gramatika: birpasa (5')

- Ikasleek gogora ditzatela A atazan mugagabeari eta galdegaiari buruz emandako oharrak, eta egiaztatu dezatela ataza honetan idatzitako galderetan alderdi horiek errespetatu dituzten ala ez.
- Ikasleek egindako akatsak arbelean zerrenda daitezke, eta zuzentzeko eskatu.

3

Atazaurrea (30')

- Adieraz dezatela haurrekin nolako txangoak prestatzen dituzten, zer duten gustukoak eta zein informazio-iturri erabiltzen dituzten txangoak antolatzeko orduan.

- www.argia.com/gida/gorbeia1a.htm orria bisita dezatela internet-en eta ikus dezatela nola dagoen antolatuta eta nolako laguntzak dituen txangoak antolatzeari begira. Lagungarri gisara, II. eranskinean aurkituko duzu webgune horretako informazio nagusia fitxa modura antolatuta.

Ataza: helburuaren arabera laburpenak egitea (60')

- Irakur dezatela irakasleak haurrari emandako helburu-zerrenda.

LANAREN HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Gure ingurunea hobeto ezagutzea. • Txangoa egin aurretik zure klasekoek zerbait jakitea bisitatuko ditugun lekuei buruz. • Ahal izanez gero, klasekoen interesa lortzea bertara joateko.

- Horren arabera, eztabaida dezatela ikaslearen liburuan azaltzen diren jokabideen gainean. Taldeka jarrita, erabaki dezatela egokiak diren ala ez.

<ul style="list-style-type: none"> • Bereziki saiatu beharko du informaziorik deigarriena jasotzen. • Orografiari, faunari, landarediari... lotutako hiztegiari erreparatu beharko dio. • Saiatu behar du ahalik eta xehetasunik gehien jasotzen. • Ez da beharrezkoa laburpen-testua gehiegi orraztea; ikaskideei azaltzeko baino ez du erabiliko.

- Komenigarria da jokabide batzuei berariaz erreparatzea ataza honetan, hiztegiarenari eta informazio deigarria hautatzearenari, hain zuzen ere.
- Irakasleak haurrari hiztegia zaintzeko esan dio eta ariketa modura proposatu hitzen zerrenda definizioekin lotzeko, ahal izanez gero, hiztegian begiratu gabe.

ERANTZUNA:

Iturburu	f) Zerbaiten hasierako edo sorrerako unea edo tokia, adibidez, ibai batena.
Mendate	b) Mendia errepidez edo kaminoz igarotzeko pasabidea.
Bailara	c) Mendi edo leku garaien artean dagoen lurraldea.
Arroila	a) Mendiarteko bitarte sakona.
Ur-jauzi	e) Ibaian urak bere bidean bare-bare aurrera egin beharrean, bat-batean goitik behera amiltzea.
Santutegi	j) Kristauak biltzeko Jainkoaren, Ama Birjinaren edota sailduren baten izenean eraikitako eliza.
Bidezidor	g) Bidetxo meharra, estua, eskuarki norabaiteko bidea laburrago bihurtzeko erabiltzen dena.
Uharka	h) Ibaiko urak, joanaren joanez edota gizakiaren eraginez, ebakitako erretena.
Saihesbide	i) Erdiko norabidetik aldentzen den alboko bidea.
Karst	d) Batik bat kareharrien eta, neurri txikiagoan, beste arroken disoluzioz sortzen den topografi mota
Mendizerra	k) Mendikatea baino txikiagoa izan ohi den segidako mendiz osatutako lur-saila.

- Taldeka, testuaren atal bat irakurri (II. eranskineko fitxak), eta hitz gakoak azpimarratu.
- Bila ditzatela hitz gako horien definizioak hiztegian. Irakur ditzatela definizioak talde osoaren aurrean, ea gainerakoek dagokion hitza asmatzen duten.
- Jarraian, irakasleak eskatu die haurrei gogoan izan beharreko hainbat ohar taula batean idazteko. Haur batek lana egin du, baina nahastu egin da.
- Taula irakurri, eta zutabe desegokian daudenak identifikatu behar dituzte.

ERANTZUNA:

EZ	BAI
<ul style="list-style-type: none">Kopiatu testu zatiak hitzez hitz	<ul style="list-style-type: none">Azpirarratu egin behar duzun lanerako interesgarriak diren ideiak

- Adieraz dezatela taldean haurrak irizpide horiek ulertuko dituzten, eta hala ez bada, nola azaldu era xeheagoan, adibideak edo arrazoiak emanez.
- Arestiko fitxetara itzuli, eta erabaki dezatela zer azpirarratuko luketen eta zergatik.
- Egin dituzten azpirarrak trukatu eta baloratu.
- Irakur ditzatela haurrek egin dituzten laburpen zatiak eta eztabaidatu dezatela zein iruditzen zaien egokiena eta zergatik (V. eranskina). Lotu ditzatela laburpenok irakasleak egin dizkien iruzkinekin. Adieraz dezatela ea ados dauden irakaslearen iruzkinekin eta ea beraiek besterik esango luketen.

ERANTZUNA:

1. C	2. B	3. A
------	------	------

- Laburpenak ondo egiteko aholkuak laburbiltzeko, gainbegira ditzatela orain arte ataza honetan agertu diren alderdiak eta egin diren ariketak. Ondoren, zerrendatxoren bat pentsa dezatela, eta nahi izanez gero, idatz dezatela puxikan, aurreko atazan egin duten moduan.

Feedbacka (10')

- Puxikak beste taldekideekin trukatu, alderatu eta egokiena iruditu zaiena aukeratu.

Atazaostea (45')

- Egokitutako testu-zatiaren laburpena idatz dezatela, emandako aholkuei segituz.
- Laburpenak trukatu eta iruzkina idatz dezatela taldean, irakasleak egingo lukeen moduan.
- Irakasleak laburpen bat edo bi aukera ditzake eta ozenki irakurri, baita ikaskideek idatzitako iruzkinak ere. Jarrian, adieraz dezatela ea puxikan idatzitakoa kontuan hartu duten ala ez.

Gramatika eta diskurtsoa: ibilbidearen deskribapena (20-25')

- Bi ikastaldek jatorrizko testu-zati bana hartu eta azpirarra ditzatela ibilbidearen berri emateko erabilitako esapideak eta lotura egiturak. (adib: tartean, hurrengo gunea, berau igaro eta...).
- Hirugarren taldeak jatorrizko testu-zati bat hartu eta azpirarra ditzala bertara joatera animatzeko erabilitako esapideak edo hitzak (adb: zalantzarik gabe, panoramika zoragarriak eskaini, edertasunak erakarrita...).
- Hirunaka jarrita, elkarri azal diezaiotela zer aurkitu duten, eta ea idatzi dutena hobe daitekeen, bi alderdi hauek aberastuz.

4

Atazaurrea (20')

- Irakasleak hurrei agindu die Aramaiori buruzko fitxa bat egiteko, bertako daturik esanguratsuenak jasoz. Taldeka, saia daitezela herri bati buruzko fitxa bat egiteko eredu bat eratzten. Horretarako, kontuan har dezatela beraien esperientzia eta beraiek herri horri buruz jakin nahi luketena.
- Ondoren, Euskal Herria entziklopedian dagoen antolaketaekin alderatu, eta ikusi berdintsuak diren (IV. eranskina); eta hala ez bada, adieraz dezatela zein antolamendu iruditzen zaien egokiagoa edo gustagarriagoa.

Ataza: haur batek egindako fitxa aztertu eta orrazteko proposamenak egin. (45')

- Ikaslearen liburuan haur baten pentsamenduak ageri dira. Irakurri eta esan dezatela nolako antzekotasuna duten euren seme-alabeneekin eta zeintzuk izaten diren euren haurrak izaten dituen zailtasunak, zalantzak, oztopoak...

1. Zer egin behar dut? Eskema bat? A zer lana! Gainera, zertarako? Ez dute ezertarako balio!

2. Ideia batzuk azpimarratuko ditut eta kito! Zerrendatuko ditut, eta, gero, klasean irakurriko ditut... Hau ez dut ulertzen... Beno, igual dio! Inportantea dirudi, eta jarri egingo dut.



3. Irakasleak esan dit ez dudala ondo azaldu, eskema ez nuela ondo eginda. Eta nola jakingo dut nik nola egin? Segur aski, besteek berdin egingo zuten! Irakasle honek begitan hartu nau!

- Hurrei kosta egiten zaie eskemak egitea. Horrexegatik, zerrenda ditzatela eskema egitearen alde onak, eta beren haurrarekin erabiliko litzuketzen argudioak. Hona hemen balia daitezkeen hainbat argudio:
 - Ideiak hautatzeko baliagarria da, zer erabili eta zer ez erabakitzeke.
 - Azalpena egiten ari garen bitartean, denbora eta garapena erregula daitezke. Jakin dezakegu puntu garrantzitsuenak esan ditugun ala ez.
 - Lotura-bideak erabiltzeko aukera ematen du, ideien arteko harremana argitu dugulako.
- Haur batek azalpena egiteko zerrenda bat egin du. Irakasleak haurrari esan dio hainbat akats egin dituela. Taldeka jarrita, azter dezatela. Jarraian, azaldu ahoz beste taldekoei proposatu dituzuen aldaketak puntuz puntu: zer kendu, zer zehaztu, nola ordenatu...
- Haurrak egindako fitxa orraz dezatela.

Feedbacka (10')

- Horman itsas ditzatela eskemak egitearen aldeko argudioak eta fitxa zuzenduak. Jarraian, errepara diezaietela egindako proposamenei.

Ataza: irrati-saio bat entzun eta herriari buruzko fitxa egiteko beste aukera bat aztertu (25')

- Taldeka jarrita, arestian erabilitako Aramaiori buruzko materiala har dezatela (IV. eranskina) eta saia daitezela bertara joateko hiru arrazoi zerrendatzen.
- Aramaioko alkateak bere herriari buruz egiten duen aurkezpena entzun dezatela ("Hiru arrazoi zure herria bisitatzeko"/VI. eranskina) eta bete dezatela liburuan duten eskema.

ERANTZUNA:

-Herriaren aurkezpena:

- **Non dago kokatua:** Arabako iparralde menditsuan (iparraldean Arrazola, Aspe eta Abadiño, ekialdean Arrasate eta Eskoriatza, hegoaldean Gatzaga eta Legutio eta mendebaldean Otxandio)
- **Biztanle kopurua eta euskaldun kopurua:** 1.500 biztanle inguru, %94 euskaldunak (bizkaieraz)
- **Ekonomiaren oinarria:** nekazaritza eta abeltzaintza.

-Hiru arrazoiak:

1. Mendia, irteerak, natura: Anboto, Orixola, Izpizti. Udalak bideak markatu ditu, denborak eta antzekoak seinalizatu eta mapak eskuragarri jarri tabernetan eta nekazari etxeetan. Edozeinentzat dira egokiak markatutako bideak.

2. Agroturismoa: baserriarren bizimodua ezagutzeko aukera, baita antzinako errota martxan ikusteko ere, txango polit asko ordubeteko distantzian (Gasteiz, urtegiak, parkeak)
3. Auzokoak ezagutu: 9 auzo desberdin ditu, 8 bailaran bertan eta Oletakoa urrutixeago. Antzinako konstrukzioak daude gordeta, paseo politak, bertakoekin hitz egiteko aukera.

- Aldera ditzatela bi eskemak (aurreko atazan landutakoa eta irrati-saioa entzunda egindakoa) eta ikaskideei informazioa emateko egokiena edo erakargarriena hauta dezatela, arrazoiak emanaz.
- Puxika osatu ataza osoan zehar ikusitako alderdi guztiak laburbilduz.

NOLA ATERA ESKEMAK TESTUETATIK? AHOLKUAK

1. Lehendabizi, testua gainetik irakurri, eta ikusi informazioa zenbat ataletan dagoen antolatua.
2.
3.

Feedbacka (5´)

- Idatzitako puxika guztiak irakurri eta egokiena hautatu denon artean.

Gramatika eta diskurtsoa: deskribapena (25´)

- Ikasleak bi taldetan banatu eta hauta dezatela herri bat. Presta dezatela herri horren deskribapena egiteko fitxa.
- Kide bakoitzak aukera dezala eskemaren zein puntu azalduko duen, eta denen artean aurkezpen jarraitua egin dezatela, beti ere, aurrekoak esan duena kontuan hartuz, eta hurrengoari ideiak jan gabe. Azalpena grabatu.
- Beste taldekoek, azalpena entzun bitartean, saia daitezela erabiltzen ari diren eskema igartzen, eta idatz dezatela orritxo batean; bide batez, saia daitezela asmatzen dute zein herri den.
- Taldeka jarrita, beste taldearen grabaketa entzun dezatela, eta, batez ere, azter dezatela ea testu-zatiak josi dituzten. Horretarako, jaso dezatela orritxo batean zeintzuk izan diren erabili dituzten esapideak. Ondoren, taldekideei adierazi.
- Proposa ditzatela "josturak" hobetzeko moduak (lokailuak, esapideak...)

C ATAZA: NOLAKOA DA GEURE INGURUA?

(140')

Helburu orokorra

- Gutunak idazteko prozesua gidatzea.

Helburua zehatzak

- Gutunak prestatzeko prozesuari arreta jartzea eta planifikazioa egiteko modu desberdinak aurkeztea.
- Gutunek, oro har, duten egitura nagusia aztertzea eta kasu jakin batean duen erabilgarritasuna baloratzea.
- Gutunen eta, oro har, idatzizko artikuluen errepasoa egiteko irizpideak finkatzea.

Zertan den

- Eskolan agindutako lanak egiteko jarraibideak aztertu, haurraren ikuspegia kontuan hartuta.
- Gutuna idazteko egitura posible bat baloratu eta behar diren aldaketak proposatu.
- Gutuna idazteko orduan haurrak izan ditzakeen zailtasunei aurre egiteko proposamenak egin.
- Idatzizko lanak erreparasatzeko fitxa eredugarria osatu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (10')

- Hurrek truke-programa batean hartu behar dute parte.
- Taldeka, ikaslearen liburuan dauden galderen gainean jardun daitezela.

- Inoiz parte hartu al duzu horrelako trukeetan? Hala bada, adierazi zeure esperientzia. Zein dira honelako esperientzien alderdi pozgarriak? Arazorik sortzen ote da?
- Zeure etxean haur bat hartzekotan, zer jakin nahi zenuke etorriko zaizun haurrari eta bere familiari buruz?
- Zer jakin nahi zenuke zeure haurra joango den herriaz?

Ataza: gutunean zer esan eta informazioa nola egituratu erabaki (25')

- Taldeka jarrita, gutunak jaso beharko lituzkeen xehetasunak zerrendatuko dituzte galdera moduan eta gaika antolatuta.

- Zer gustatzen zaizu jatea?
- Zer zaletasun dituzu?


- Zerrenda bateratu eta ordenatu egingo dute.
- Ondoren, irakasleak hurrei eman dien fitxa aztertuko dute. Eztabaida dezatela zergatik izan daitekeen garrantzitsua puntu horien gainean hausnartzea, gutuna idazten hasi aurretik.

NOLA HASI GUTUN BAT PRESTATZEN?

Galdera batzuk egin behar dizkiogu geure buruari:

- a) Nori bidaliko diogu?
- b) Zer lortu nahi dugu gutunaren bidez?
- c) Zer kontatuko diot?

- Emandako azalpenekin haurra ez da gustura geratu, eta ondorengo zalantza adierazi du:



- Erabaki dezatela zer erantzungo lioketen:

- Arrazoi duzu; zuk idatzi zerbait herriaz eta zeure familiaz idazlan bat izango balitz bezala, eta kitto!
- Ez maitea! Galdera horiek zeure irudimena pizteko dira: nolakoa nahi duzun izatea haur hori, familia hori...
- Ez dituzu ezagutzen, noski! Baina ez zaio berdin idazten ezagun edo ezezagunei; ez da berdin idazten zerbait eskatzeko edota zerbait erreklamatzeko. Hasi baino lehen, hori guztia hartu beharko duzu kontuan.

- Jarraian, irakasleak haurrei gutuna egiteko aukeran eman dizkien bi eskemak aztertuko dituzte. Taldeka jarrita, erabaki dezatela zein gomendatuko lioketen eta zergatik.

<ul style="list-style-type: none"> • DATU NAGUSIAK • INFORMAZIO OROKORRA • HISTORIA • ARTEA • PERTSONAIA OSPETSUAK 	<ul style="list-style-type: none"> • AURKEZPENA: INFORMAZIO OROKORRA • HERRIRA ETORTZEKO HIRU ARRAZOI • LABURBILKETA ETA ANIMATZEA
---	---

Feedbacka (10')

- Taldeek beren erabakien berri emango diete gainerako ikaskideei.
- Ikaslearen liburuan dauden "gutunak prestatzeko aholkuak" irakurri eta haurrek zenbateraino zaintzen dituzten eztabaida dezatela.

<p>GUTUNAK PRESTATZEKO AHOLKUAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ondo definitu norentzakoa eta helburua. • Pentsatu adierazi nahi ditugun ideiak, eta, gutun luzea bada, idatzi tauletan, zerrendetan... • Pentsatu gutuna egiteko eskema bat. • Ez ahaztu gutunek sarrera/amaiera berezia izaten dutela.
--

2

Atazaurrea (5')

- Adieraz dezatela haurrak egindako eskema egokia iruditzen zaien ala ez. Kontuan izan haurra zer egin pentsatzen ari dela oraindik.

<p>AGURRA: _____</p> <p>SARRERA: esan zein zaren eta zer kontatuko diozun gutunean.</p> <p>MAMIA: azaldu zure familia eta herria nolakoak diren, eta txango batzuk proposatu.</p>	<p>DATA</p>
---	-------------

LABURPENA: kontatu diozuna labur-labur jarri, gauza onak azpimarratuz.

AZKEN AGURRA: animatu geuregana etortzera, esan zein ondo pasako duen eta agurra idatzi.

SINADURA

Ataza: gutuna egoki egituratzeko irizpideak erabaki (15')

- Irakurri irakasleak haurrei emandako "errezeta" (Gutun luzeak egiteko errezeta bat).

GUTUN LUZEAK EGITEKO ERREZETA BAT

- Data jarri.
- Sarrerako agurra idatzi.
- Hasteko, esan zein zaren eta zertarako idazten diozun gutuna.
- Kontatu mamian esan beharrekoa, beti egitura jakin bati segituz.
- Animatu, gonbidatu, proposatu,... gutunaren helburuaren arabera.
- Azken agurra.

- Alderatu ikaslearen eskema eta irakaslearena. Zerrendatu haurren zirriborroaren hutsuneak eta zailtasunak, eta, jarraian, egin proposamenak hutsune horiek zuzentzeko, emandako taularen arabera:

ZAILTASUNAK	PROPOSAMENAK
- Ez daki nola agurtu. - Ez daki oso garbi zer esan hasieran, sarrera gisa.	- Kaixo, laguna! - Esango diogu esateko zein eskolatakoa den, zein herritakoa, bera dela trukerako kidea eta azaldu nahi diola gutunean nolakoak garen, zer ohitura ditugun eta nolakoa den gure herria.

Feedbacka (10')

- Hitz egin dezatela antzemandako zailtasunez eta egindako proposamenez.

Ataza: gutun bat osatu nork bere herriko datuak erabilita (20')

- Taldeka jarrita, gainbegiratu gutuna eta identifikatu zer falta den hutsune bakoitzean (VI. eranskina).
- Bakarka, nork bere proposamena idatzi.

Feedbacka (10')

- Testuak elkarrekin trukatu eta egin ditzatela proposamenak eskutitzak hobetzeko.

3

Atazaurrea (10')

- Ikasleek adieraz dezatela elkarren testuak "orrazten" jarri direnean zeri erreparatu dioten bereziki (gramatika, forma orokorra, ideien azalpena, hiztegia...) eta zergatik.

Ataza: gutuna birpatsatzeko irizpideak sailkatu (15')

- Irakasleak haurrei emandako irizpideak (galderak) taulan kokatu

ERANTZUNA:

PLANGINTZA:	- Kontuan izan al duzu nori bidali behar diozun gutuna? - Garbi geratu al da gutunarekin lortu nahi duzun helburua? - Begiratu al duzu ea berriro egin dituzun normalean egiten dituzun
--------------------	---

	akatsak? Aldez aurretik prestatu duzun eskemari segitu diozu?
GUTUN FORMATOA:	- Gutunari jarri al dizkiozu data eta agurrak?
PARAGRAFO BANAKETA:	- Bereiztu al dituzu ideiak paragrafotan? - Paragrafoak luzeegiak/motzegeiak egin al dituzu? Aldatu behar al duzu ezer alde horretatik?
JOSKERA:	- Erabili al duzu zatiak josteko egiturarik? Zeintzuk?
HIZKUNTZA TRESNAK:	- Nolako hizkuntz egiturak erabili dituzu? Sinpleak, konplexuak, zehatzak... - Egokiak al dira egoera horretarako?
ZUZENTASUNA:	- Ortografia errepasatu al duzu? Deklinabidea eta aditza ondo begiratu dituzu (singular/plural, mugagabea/mugatua, aditz erregimena,...) - Esaldien arteko joskera errepasatu duzu? Falta duzu -LA, -N edo antzekorik?

Feedbacka (10')

- Kontrol-fitxa hori erabilia berraztertu norberak idatzitako pasarteak eta adierazi zertan uste duten hobetu beharko lituzketela idatzitako testuak.

ERREPASOA FUNTSEZKOA DA

Geure lana errepasatuz dezente hobe dezakegu, baina jakin egin behar zer edo nola errepasatu. Proposatu dugun fitxa testu gehienetan erabil daiteke; hori bai, interesgarriena litzateke nork berea izatea, menderatzen dituen alderdiak kendu eta kosta egiten zaiona azpimarratuz.

3. MATERIAL OSAGARRIA

A. HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!

(345')

Helburu orokorrak

- Txangoekin eta bidaiekin lotutako jolas matematiko batzuk egitea.

Helburu zehatzak

- Mapak eta planoak interpretatzea.
- Logika matematikoaz baliatuta zenbait eragiketa burutzea.
- Datuak erkatuta eragiketa matematikoak egitea.
- Datu desberdinak erabilia taula bat osatzea eta taulan oinarrituta ahozko azalpena burutzea.

Zertan den

- Eguraldi mapekin eta temperaturekin lotutako hainbat jolas matematiko ulertu eta egin; antzekoak asmatu hurrei eginarazteko.
- Euskal Herriko mapari begira, ibilbidea seinalatu eta plana prestatu.
- Herri bateko planoan hartuta azalpenak ulertu eta norberaren herriko planoan ibilbidea seinalatu eta azaldu
- Irteera edota opor batzuk antolatzeke aurrekontua prestatu datuak konparatuz.
- Neurriekin eta txanponekin eragiketa matematikoak egin; euroa pezetarekin alderatzeko taula osatu eta azaldu
- Matematikaren alderdi desberdinak lantzen dituen jolas-multzo bat aurkeztu.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (5')

- Irakasleek eguraldiarekin lotuta burura etortzen zaizkien hitzak bilduko dituzte taldetxotan, ahalik eta gehien, eta ondoren arbelean idatziko dituzte taldeetan agertutako guztiak. Irakasleak ere erants ditzake eguraldiaren iragarpenean maiz erabiltzen diren beste hitz batzuk.

Ataza: eguraldiaren iragarpenak eta temperaturak (35')

- Irakasleen liburuko mapari begira, ondorengo adierazpenak egiaztatu behar dituzte.



	E	G
1. Euskal Herriko hegoaldean egun eguzkitsua izango dute	P	O
2. Arabako hegoaldean zeru lainotsu eta goibela	S	R
3. Ekaitzak ugariak izango dira Bizkaiko iparraldean	T	I
4. Kostaldean zerua estalia egongo da egunean zehar	M	U
5. Kostaldean iparraldeko ekaitz-haizeak indartsu joko du	A	E
6. Nafarroako iparraldean ekaitzak joko du	R	M
7. Itsasaldean mendebaldeko haize leunak joko du	A	P
8. Barnealde osoan euri-zaparrada ugariak izango dira	R	N

ERANTZUNA: P-R-I-M-E-R-A-N

- Temperaturaren arabeko taula egin, ondorengo datuak hartuta:

<ul style="list-style-type: none"> • Goizeko zortzietan, temperaturarik baxuena Gasteizen eta Bilbon izan zen. • Ordu berean, Bilboko eta Gasteizko temperaturen batura 30 zen. • Iruñeko temperatura, goizean, Bilbokoa baino gradu bat altuagoa zen. • Baionan eta Donostian temperatura bera izan zuten goizean. • Donostiako temperatura 28 gradukoa zen arratsaldeko ordu bietan, goizeko zortzietan baino hamar gradu altuagoa. • Arratsaldeko ordu bietan, bost hiriburuetakoko temperaturarik altuena Iruñekoa izan zen. • Temperaturarik altuena Bilbon eta Gasteizen goizeko zortzietan jasotako temperaturen batura da. • Arratsaldeko ordu bietan Bilboko eta Gasteizko temperatura Iruñekoa baino baxuagoa eta Donostiakoa baino altuagoa zen. • Baionan goizeko eta arratsaldeko temperaturen arteko aldea 7 gradukoa izan zen.
--

ERANTZUNA:

	Bilbo	Iruñea	Baiona	Donostia	Gasteiz
08:00	15	16	18	18	15
14:00	29	30	25	28	29

- Eguneko Egunkariko eguraldiaren mapa eta temperaturak begiratu, eta talde bakoitzak arestikoen antzeko joko bat presta dezala.

Feedbacka (20')

- Talde berriak egin eta bakoitzean talde txikietako ikasle bat jarri. Bakoitzak taldean prestatu duen jolasa egin behar die taldekideei. Horrela, jokoa ongi prestatua dagoen egiaztatu ahal izango dute.

Gramatika: konparazioa (10')

- Jaso ditzatela ariketetan agertu zaizkien konparaziozko egiturak.
- Izan dituzten zalantzak argitu (-en arteko aldea/desberdintasuna, konparatiboak, superlatiboak, bera/berdina...)
- Egoki iritziz gero, berariazko ariketak erabil daitezke konparaketan sakontzeko.

2

Atazaurrea (5')

- Adieraz dezatela taldean ea txangoak nola antolatzen dituzten: mapei begira, inprobisatuz, ibilbidea alde zuzenetik prestatuz,...
- Adieraz dezatela nolako zailtasuna izan ohi duten hurrek mapak direla eta: ea ohituta dauden bertan begiratzen, sinboloak ezagutzen dituzten, gustuko dituzten...

Ataza: Euskal Herriko mapari begira, ibilbidea seinalatu eta plana prestatu (20')

- Abenturazale batzuen bidaiari buruzko oinarritzko informazioa eta Euskal Herriko mapa bat hartuta, liburuan eskaintzen zaien taula bete behar dute ikasleek.

Abenturazale talde batek Euskal Herria zeharkatuko du. Ebro ibaia piraguaz jaitsi, Nafarroa hegoaldeko iparraldera bizikletaz pasatu, kostaldea oinez egin eta Bizkaia eta Araba goitik behera zaldiz igarotzeko asmoa dute. Hau guztia egiteko 15 egun beharko dituzte. Etapak 14 izango dira. Baionara uztailaren 27an iritsi eta bertan egun bateko atseden hartuko dute.

ERANTZUNA:

ETAPA	EGUNA	NOLA
Sobrondik La Pueblara	uztailak 22	piraguaz
La Pueblatik Lodosara	uztailak 23	piraguaz
Lodosatik Tuterara	uztailak 24	piraguaz
Tuteratik Iruñera	uztailak 25	bizikletaz
Iruñetik Donibane-Garazira	uztailak 26	bizikletaz
Donibane-Garazitik Baionara	uztailak 27	bizikletaz
Baionatik Hendaiara	uztailak 29	oinez
Hendaiatik Donostiara	uztailak 30	oinez
Donostiatik Zumaiara	uztailak 31	oinez
Zumaiatik Ondarroara	abuztuak 1	oinez
Ondarroatik Bermeora	abuztuak 2	oinez
Bermeotik Durangora	abuztuak 3	zaldiz
Durangotik Gasteiza	abuztuak 4	zaldiz
Gasteiztik Biasterira	abuztuak 5	zaldiz

- Taldetxotan, Aste Santurako plana egin dezatela, liburuan eskaintzen zaien taula erabiliz. Horretarako, oso egokia da IHESI gida erabiltzea (<http://www.argia.com/gida/index.htm>).

ETAPA	EGUNA	ZER IKUSI/EGIN (ekintza nagusia)
	ostegun santua	
	ostiral santua	
	larunbata	
	igandea	
	astelehena	

Feedbacka (10')

- Talde ezberdinetako bikoteak osatuz, azal diezaiotela elkarri prestatutako plana. Batek aurkeztu bitartean, bestea saia dadila aurkeztutako ibilbidea mapan lekutzen; nahi izanez gero, Euskal Herriko edo euren lurraldeko mapa osatu bat ekar dezakete eta azalpenak bide zehatza seinalatuz egin.

Atazaostea (15')

- Aztertu proposatutako jolasa. Taldeka adieraz dezatela ea antzekorik egin izan duten inoiz beren seme-alabekin. Ahal dela, egin dezatela bat etxean haurrekin eta hurrengo egunean azal dezatela gelan. Bestela, konta dezatela egin duten azken txangoa, egindakoa orduz ordu zehaztuz.

ORDUA	ZER IKUSI/EGIN (ekintza nagusia)
07:30	jaiki, gosaldu eta dena prestatu
08:30-ra abiatu
09:00-11:00 ikusi eta bisitatu

Gramatika: herri izenen deklinabidea eta aditz formen erabilera (25')

- Aztertu nolako zailtasuna izan duten ikasleek deklinabidearekin, bereziki herri izenen deklinabidean. Egin dituzten akats zehatzak idatzi arbelean. Adibidez:
*"Donostitik Azpeitiara joango gara"
- Ariketa desberdinak proposatu ikasleei, herri izenen deklinabidean dauden gorabeherak lantzeko.
- Asmoak adierazteko aditz formei erreparatu, batez ere, ahaleraren erabilerrari, eta ikasleek izan dituzten zalantzak eta akatsak hizpide jarri. Adibidez: dezakegu/gaitezke, daiteke/dezake/liteke,...

3

Atazaurrea (5')


- Ikasleek adieraz dezatela ze esperientzia duten planoen irakurketan eta nola moldatzen diren hiri berrietan planoari begira orientatzeko.

Ataza: herri bateko plano hartuta azalpenak ulertu eta norberaren herriko planoan ibilbidea seinalatu eta azaldu (30')

- Azalpenak irakurri eta planoaren gainean markatu Etxeberritarrek jarraitutako bidea.

Autoa udaletxe aurreko aparkalekuan utzi ondoren, Etxeberritarrak bainuetxera joan dira hondartzarako bidetik. Bainuetxean itsasoko ur-bainu bat hartu eta gero, paseatzera joan dira lasai-lasai.

Lehendabizi, Kasino Zaharraren aurretik pasatu dira, eta eskuineko kalea hartu dute, itsasbatterreko dorretxe zaharra ikusteko. Segidan, eliza inguratu eta akuariora zuzendu dira. Akuariora bisitatu eta gero, bidezidor batek farora eraman ditu, eta, faroaren azpitik pasatzen den pasealekuari jarraituz, portura iritsi dira. Portuko aparkalekura iristean, eskuinera doan kaian aurrera abiatu, eta, zubitxo bat igaro ondoren, ontziralekura iritsi dira. Azkenik, ontziralekuan txalupa bat hartu, eta itsasoz hondartzaraino joan dira Etxeberritarrak.



- Bigarren irakurraldian, azpimarra ditzatela bideak markatzeko erabili diren egiturak (ondoren, bidetik, -ren azpitik,...). Erreparatu B atazan 3. puntuan landutako egiturak ere.
- Ondoren, beren planoarekin gauza bera egin dezatela: kanpoko haur batekin egingo luketen ibilbidea markatu. Ikasleak herri berekoak badira, inguruko herriko planoak eskura ditzatela. Horretarako, turismo-bulegora jo dezakete, edo bestela begiratu herrien planoak biltzen dituzten liburuetan. Gipuzkoakoak honako liburuan aurkituko dituzue: **Gipuzkoa: bere auzo eta kaleak KALIDETEK, 1998**. Interneten ere aukera dezente dago mapak eskuratzeko.
- Presta dezatela bakarka egin behar duten azalpenaren zirriborrotxoa, batik bat, erabiliko dituzten egiturak aurreikusiz.
- Taldetxotan jarrita, bakoitzak bere azalpena egingo du, eta bitartean ikaskideek planoan markatuko dute azaldutako ibilbidea.

Feedbacka (15')

- Ondoren, egiazta dezatela ea ibilbide bera markatu duten.

Atazaostea (15')

- Gauza bera egin dezakete hiriburu bateko planoak hartuta. Ahal bada, presta dezatela etxean beren haurrekin batera. Egin ditzaketen gauzak seinatu eta taula batean jaso ditzatela. Ondoren, gelara ekarri eta elkarri azal diezaiotela.

4

Atazaurrea (10')

- Adieraz dezatela nola antolatzen dituzten bidaiak. Zein izan da egin duten azken bidaiak? Nora? Bidaiak agentzietara jotzen al dute? Aurrekontua prestatzen al dute? Leku desberdinak konparatzen al dituzte?...
- Azal dezatela noraino hartzen duten parte beren seme-alabek oporrak erabakitzeke orduan.

Ataza: irteera edota opor batzuk antolatzeko aurrekontua prestatu datuak konparatuz (45')

- Hirunaka jarriko ditugu ikasleak. Ikasleetako bakoitzak lan bat egingo du: batek taula bete, beste batek galderei erantzun eta beste batek herriak mapan kokatu (behar bada, *EUSKAL HERRIA multimedia entziklopedia* erabil dezala). Bukatzean, eman diezaiotela elkarri jasotakoaren berri.

Opor hauetan etxetik kanpo egun batzuk pasatu nahi ditugu. Bidai agentzia batean izan gara, eta zalantzan gaude bost aukera hauen artean.



Atsedeen Eder
2. mailako kanpina
Hondartzatik 20 m-ra
HENDAIA
Pertsonako:
- 420 pta/eguneko
- 6 urteik beherako haurrek erdia



Goikalde
Apartamentuak
Hondartzatik 200 m-ra
ZARAUZ
Pertsonako:
- 4.300 pta/eguneko
- 10 urteik beherako haurrek erdia



Itsas Gain
Hotela ****
Hondartzatik 50 m-ra
LEKEITIO
Pertsonako:
- 8.550 pta/eguneko
- 14 urteik beherako haurrek erdia



Zuhaizti
1. mailako kanpina
LIZARRA
Pertsonako:
- 580 pta/eguneko




Baso Zabal
Hotela **
LEITZA
Pertsonako:
- 4.700 pta/eguneko
- 12 urteik beherako haurrek erdia

ERANTZUNA:


	kafetegia	Jatetxea	Aparkalekua	Piszina	Txakurrak	Telebista	Antena parabolikoa	Tenisa	Dantzalekua	Telefonoa	Bainua gelan	Ileapaindegia	Supermerkatua
ATSEDEN EDER	X			X	X								
GOIKALDE	X	X	X		X		X	X					
ITSAS GAIN	X			X		X	X	X	X	X	X	X	
BASO ZABAL		X		X	X			X		X	X		
ZUHAIZTI	X	X		X	X				X				X

- Bost leku horietatik zeintzuk daude kostaldean? ATSEDEN EDER, GOIKALDE, ITSAS GAIN
- Zein dago hondartzatik gertuen? ATSEDEN EDER
- Zein hotelek du kategoria handiena? ITSAS GAINek
- Txakurra eraman nahi izanez gero, nora joan zaitezke? ATSEDEN EDER, GOIKALDE, ZUHAIZTI edo BASOZABALera

Euskal Herriko mapan, bost herri hauek adierazi: Zarautz, Lizarra, Hendaia, Lekeitio eta Leitza.



- Bakoitzak sendi bat hartu eta eragiketak egin: zenbat ordaindu behar izan du familia bakoitzak oporraldiagatik?. Ondoren, taldekideei azaldu nola atera dituzten kontuak.



ERANTZUNA:

- Otermintarrek aste bat pasatu dute Atsedean Eder kanpinuean. Zenbat ordaindu behar izan dute?
(3 pertsona x 420 pezeta/egun + pertsona 1 x 420/2 pezeta/egun) x 7 egun = 10.290 pezeta
- Zenbat kostatu zaie Lasatarrei Goikalde apartamentuetan igaro dituzten 10 egunak ordaintzea?
(2 pertsona x 4.300 pezeta/egun + pertsona 1 x 4.300/2 pezeta/egun) x 10 egun = 107.500
- Iriarte sendiak 5 egun pasa ditu Leitzako hotelean. Zenbat ordaindu dute?
(3 pertsona x 4.700 pezeta/egun + 2 pertsona x 4.700/2 pezeta/egun) x 5 egun = 94.000
(4 pertsona x 4.700 pezeta/egun) x 5 egun = 94.000 pezeta

- Ikasle bakoitzak etxean bizi direnen datuak gogoan hartuta, aukera dezatela bost opor-lekuetako bat eta kontuak egin ditzala astebete bertan pasatzea zer kostatuko zaion.
- Bidaia agentziak bisita ditzatela edo bestela gelara eraman katalogoren bat eta berrori begira, atera dezatela hotelei buruzko informazioa. Prezioak hartuta arestikoaren antzeko jolas bat presta dezatela.

Feedbacka (15')

- Beste talde bati eman prestatutako jokoak, egin dezaten.

5

Atazaurrea (10')

- Adieraz dezatela zer deritzoten haurrak atzerrira joateari. Zein adinekin? Zeintzuk dira alde onak eta txarrak?

Ataza: neurriekin eta txanponekin eragiketa matematikoak egin (20')

- Taldetxotan jarrita, bihur ditzatela neurri ingelesak ezagunagoak zaizkigun beste neurri batzuetara.

ZATOZ UHARTERA

Ingalaterrako hegoaldean dagoen uharte honek 21 miliako luzera eta 14 miliako zabalera dauka. Ez da menditsua, bere gailur altuenak 1.105 oin ditu. Oso klima atsegina du —batez besteko tenperatura 68°F da—, eta bere hondartza garbiek liluratuko zaituzte.

ERANTZUNA:

Uhartearen luzera: 33,789 km
Uhartearen zabalera: 22,526 km
Gailurraren altuera: 336,804 m
Uharteko tenperatura: 20°C
Mikelek gastatu duena: 25,5 libra esterlina, 41,49 euro

- Haurrak opari batzuk erostea deliberatu du, baina prezioa libra esterlinatan dago. Garestiak diren edo ez jakiteko adieraz ditzatela prezioak eurotan (Euro 1 = 0,6146 libra esterlina —2001eko uztaila—).



- Euroa berri samarra dela eta, pentsa dezatela haurrentzat zein izan daitezkeen produktu adierazgarriak eta aldera ditzatela prezioak eurotan eta pezetatan.

PRODUKTUA	PREZIOA PEZETATAN	PREZIOA EUROTAN

Atazaostea (15')

- Azal dezatela taldetxotan nola adieraziko lieketen euren hurrei pezeta zer zen eta zer den euroa: desberdintasunak, balioak,... Eskematxo bat prestatu.
- Taldeko kideak beste taldekoekin nahastu eta aurkez dezatela ahoz prestatutako azalpena. Bitartean, besteek jaso dezatela eskema orritxo batean. Azkenean, talde bakoitzak aukeratuko du eskemarik egokiena eta talde osoari azalduko dio.

6

Atazaostea (20')

- Posible bada, eraman gelara PIRATEKIN MATEMATIKAREN MUNDUAN CD-ROM materiala eta gainbegiratu, jolasak ikusi eta adieraz dezatela zer iruditzen zaizkien beren haurrentzat.

Piratekin MATEMATIKAREN munduan

Hau duzu matematikaren mundua abian jartzeko puntua. Hemendik hasiko dituzu zure abenturak piraten laguntzaz. Begira nora joan zintezkeen:

Apalean dagoen dragoian klik egin eginez, Ness lakura joango zara, eta aztekek ezkutaturik duten altxorra topatu nahi baduzu, egin klik apaleko beste irudian. Pazko uharteraino ere joan zaitezke mahai gaineko buruan klik eginez, edo izarretan irudiak aurkitu betaurrekoa erabiliz. Inora bidaiatzeko asmorik ez baduzu, begira barrikan zer dagoen! A, eta gure itsasontzian zorabiatzen bazara, badakizu, sabaileihotik ihes egin!

NESS LAKUKO IRUDIAK
Bi ariketa-mota egin ditzakezu Ness lakuan. Lehenengo mailan, piezak piratak eskatu bezala hartu eta kokatu beharko dituzu. Beste bi mailatan, ordea, gazteluan marraztuta agertzen diren irudiak osatu beharko dituzu, horretarako dituzun piezak erabiliz. Eta bitartean, non dago munstroa?

AZTEKEN ALTXORRA

Aurkituko al duzu aztekek ezkutatutako altxorra? Horretarako, tenpluak eskatzen dizun ezkutuko kodea idatzi beharko duzu. Kontuz, kodea asmatzen ez baduzu tenplua haserretu egiten da eta!

PAZKO UHARTEKO LAGUNAK

Pazko uhartearen lagun harrigarriak aurkituko dituzu. Nahi izanez gero, zuk zeuk sor ditzakezu lagunak. Horretarako, nahikoa duzu zure lagunak izango dituen hanka-, begi- eta aho-kopurua aukeratzea. Baina, ustekabeak gustuko badituzu, egin kasu piratak esaten dizunari, eta berak esan bezala sortuko dituzu lagunak. Itxura ederra dute!

ZERUKO IZARRAK

Munduko uharte batzuetan gau izartsuetan zerura begiratuta gauza harrigarriak ikusten dira. Badirudi izarrek irudiak osatzen dituztela; asmatu kasu bakoitzean zer irudi den! Lehenengo mailan, Otik10era bitarteko zenbaki-segida jarraitu beharko duzu ordenan marrazkia osatzeko. Bigarren mailan, Otik abiatu eta piratak esaten dizun zenbakia lotu duzun azken izarrari batuz osatu beharko duzu irudia. Hirugarren mailan, pirata handientzat da bakarrik: Otik abiatu eta piratak esaten dizun zenbakia batu edo kendu egin beharko diozu lotutako azken izarrari, horrela irudia osatuz. Zorte on!

SOTO MISTERIOTSUA!

Pirata-ontziko sotoan dauden barrikak nahasirik daude. Lagundu piratei barriketan ezkututzen diren bikoteak osatzen! Lehen mailan, irudi geometrikoek osatzen dituzte bikoteak. Berdinak diren irudi geometrikoak eta osagarriak diren irudiak bilatu beharko dituzu barriketan. Bigarren mailan, batuketak eta beraien baturak bilatu beharko dituzu. Hirugarren mailan, berriz, batuketak eta beraien baturak bilatu beharko dituzu batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, kenketak eta hauen kendurak. Ez duzu lan makala egiteko!

KALKULAGAILUA

Batuketak, kenketak... zenbat buruhauste! Kontuekin asmatu ezinik bazabiltza, piraten kalkulagailua erabil dezakezu. Ez da nolana hiko kalkulagailua gainera!

- Antzekorik ezagutzen badute kalkulagailuarekin edo geometrian trebatzeko, azal ditzatela eta gainontzekoei eginarazi.
- Adieraz dezatela taldearen aurrean, zer nolako jokoak egiten dituzten hurrekin familiako bidai eta txangoetan: zer egiten duten bidean zehar hurrak ez aspertzeko, edo maleta prestatzean, edo bertan eguraldi txarra dagoenean...

B. BESTERIK NAHI?

(60')

Helburu orokorrak

- Hainbat pertsonaia mitologikoen istorioak jasoko dituen ipuina asmatzea.

Helburu zehatzak

- Haur-literaturako lan bat ezagutzea.
- Pertsonaia mitologiko ezagunen istorioak ezagutzea.
- Haurrentzako ipuin bat asmatzea.

Zertan den

- Ezagutzen dituzten pertsonaia mitologikoak zerrendatu.
- Pertsonaia mitologiko hainbaten istorioak irakurri eta kontatu. Asmatu zein pertsonaiari dagokion.
- Ipuin baten argumentua asmatu.

PROZEDURA:

Atazaurrea (5')

- Minutu batean zerrenda ditzatela gogoan dituzten euskal mitologiako pertsonaien izenak.
- Zerrendak batera ditzatela.

Ataza: istorio bat irakurri eta horren berri eman (20')

- Taldeka jarrita, bakoitzak pertsonaia bati dagokion istorioa irakur dezala (VIII.eranskina). Taldekideei istorioa konta diezaiela, baina pertsonaia zein den argitu gabe. Taldekideek asmatu egin beharko dute.

OHARRA. Istorioetako bi luzeagoak dira; bina ikaslek har dezakete horiek kontatzeko ardura.

Ataza: ipuin baten gidoia asmatu (20')

- Taldean jarrita, aurreko atazan kontatuko istorioetan agertzen diren pertsonaien gorabeherak jasoko dituen ipuin baten gidoia egin dezatela.

Feedbacka (15')

- Egindako gidoiak aurkez ditzatela eta originalena zein den erabaki dezatela.

Atazaostea

- Hala nahi izanez gero, jatorrizko liburua irakur dezakete.

4.- ERANSKINAK

I. ERANSKINA

Kontsulta-liburuak

A FITXA

8 liburuki, 21 milioi testu-karakteretik gora, 84.000 sarrera eta 8.000 azpisarrera baino gehiago.

Lexikoan 55.000 sarrera eta 68.000 adieratik gora; 1.300 azalpen entziklopediko.

Onomastikan 29.000 sarrera, horietatik 8.000 Euskal Herriari dagozkionak.

8.000 ilustrazio: argazkiak, eskemak, taulak, irudi infografikoak, mapa fisiko eta politikoak eta kartografia historikoa.

B FITXA

AURKIBIDE NAGUSIA

1. LIBURUGINTZA 1545-1999: 450 URTE
Liburua historian
Liburua gaur
Haur eta gazteentzako argitalpenak
Irakaskuntza-liburua
Jakintza-liburuak
Literaturgintza garaikidea
2. IDAZLEAK
3. ARGITALGINTZA
Nazioarteko argitalgintza
Euskal argitaratzaileak
4. LIBURUA MERKATUAN
Komertzializazioa
Irakurketa
5. KRONOLOGIA
6. BIBLIOGRAFIA

C FITXA

Liburuxka bilduma duzue hau, Gipuzkoako ohiturak, geografia, txangoak, ekonomia eta antzeko alderdiak azaltzen dituena. Liburuxka bakoitzak izenburu bat du: Neguko festak (1. alea), Gipuzkoako karst eta leize-zuloak (6. alea), Gipuzkoako trenak (10. alea)...

Testu atseginak dira, argazkiz eta marrazkiz hornituak, eta oso modu argian azaltzen ditu Gipuzkoaren interesguneak. Gainera, aleka eros daitekeenez, nor bere jakin-minaren arabera eros ditzake. Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak argitaratu ditu.

D FITXA

Egilea: Pili Lizaso eta beste batzuk

Formatua: CD-ROMa

10. argitalpena

Migel Altzo Saria 1998

Edukia: **geografia fisikoa** (ibai eta mendiei buruzko informazioa, plubiometria...), **geografia politikoa** (udalerrri mailarainoko informazioa, ekonomia...), **euskara** (tipologia, historia, euskalkiak...), **historia** (Euskal Herrikoa eta probintzi mailakoa), **kultura** (literatura, artea, tradizioak...), Euskal Herri osoko **1.400 pertsonaia ezagun** (musikariak, pintoreak, idazleak...) eta **jokoak**.

Gure herria testuz, irudiz, argazkiz, bideoz eta soinuaz erakusten dizu material honek. Sekula ez da izan hain erraza, interesgarria eta entretenigarria Euskal Herrian barna ibiltzea. Herri bat osatzen duten elementu guzti-guztiak aurkituko dituzu, eta, gainera, zuk nahi duzun eran antola dezakezu kontsulta. Bidaia zoragarria proposatzen dizugu... Euskal Herria molde berriz ikus dezazun.

E FITXA

Hiru atal nagusi ditu, beraz, liburu honek. **Euskal Herriari buruzkoa** lehenengoa; mapa fisiko-politiko eta estatistika-taulez itxuratua. **Munduko estatuak** biltzen dituena da bigarrena; mundu osoaren eta kontinenteen mapekin batera, estatuz estatuko informazio geografikoz, demografikoz, ekonomikoz eta politikoz taxututa. Eta, azkenik, **Estatuak gabeko Herriak** plano nabarmenagora ekarri nahi dituena; munduan bizi diren herri eta etnien kokapen eta eremu geografikoa lurraldez lurralde seinalatzearekin batera, horien hiztegi alfabetiko sintetikoa, bakoitzaren historia eta gaurko egoera agertzen duena.

F FITXA

Lapurdikoa kostaldetik Enkarterraino eta Arabako mendebaldetik Bardeetaraino

Autoa hartuta, bizpahiru egunez egiteko txangoak. Asteburu batean Arantzazutik abiatu eta Oñati, Loiola eta Bergararik Arrasatera helduko zara, edo...

- Euskal Herriko naturarekin behin baino gehiagotan egingo duzu topo; mendiak, haranak, ibaiak... Naturgune interesgarrien berri izango duzu.
- Mapan ia galduta dauden herri txikiak gonbidatuko zaitugu.
- Bisitatutako herri, hiri eta inguruen datu historikoak eskainiko dizkizuegu.
- Euskal Herriko arteak eta arkitekturaz gozatzeko aukera izango duzu.
- Euskal Herria ezagutzeko hainbat txango egiteko, osagai ugari jarri dugu zure eskura:
- Ibilaldi bakoitzean erakusgarri, mendi, ibai, eliza, herri, trikuharri, eskultura... eta paisaien argazkiak aurkituko dituzu.
- Hiriburuetako planoak.
- Bi edo hiru egunetako ibilbide guztia adieraziko diguten mapak.
- Txangoan zehar interesgune nagusiak zein diren adieraziko digun artikulua.
- Edozertarako prest egoteko, ehunka helbide eta telefono interesgarri.

II. ERANSKINA

Gorbeiako parke naturala

Euskal Herrian aurki genitzakeen ur-jauzi guztien artean, zalantzarik gabe, **Nerbioikoa eta Guiurikoa** dira ikusgarrienetakoak. Biak Araban ikusiko ditugu, eta, gainera, bata bestetik hurbil samar. Beraz, biak ibilbide berean egitea da zentzuzkoena.

Mirari natural horiei probetxurik handiena ateratzeko, ibilbidea bera euri-garaian edo euria egin ostean burutzea gomendatzen dizuegu; horrela, ikuskizuna paregabea suertatuko zaizue. Udaberriaren hasiera ere Gorbeia gaineko gurutzea bisitatzeko garai aproposa izaten da. Inguruko parke naturala, nahiz eta edozein unetan ederra izan, udaberrian are ederragoa izaten da. Akordatzerako helduko da udaberria, pazientzia.

A FITXA

GORBEIALDEA



Nola iritsi:

URDUÑAKO MENDATE IKUSGARRIA igotzen hasiko gara, tarteka, panoramika zoragarriak eskainiko dizkigunera. Gaina harrapatu baino lehen, Gaztelako lurretan sartuko gara. Berau igaro eta handik kilometro batera, ezkerrera, etxalde baterako sarrera ikusiko dugu, "Junta Castilla-León- Coto Privado de Caza" dioen langa metaliko berde bat duena. Sartu; ez zarete damutuko.

Bidexka zabala bada ere bidezulo handiak ditu; beraz, **oso kontuz** joan behar da. 3,5 km.ra bidegurutze batera ailegatuko gara: ezkerrera "Senda Mirador Esquina Rubén" eta eskuinera "Senda Mirador Cañon del Nervión". Lehenbizi, ezkerrera abiatzea gomendatzen dizuegu (1,5 km), bertatik **Urduñako Bailararen ikuspegi zoragarria** izango duzuelako. Hor gomendioa izango da beste begiratokira oinez abiatzea, arroilaren ertzaren gaineko **paseoa zoragarria** delako (3 km).

Dena den, bidegurutzera itzuli eta kotkez abiatzen bazarete ere (bidegurutzetik 2 km), iristean ikusiko duzuenaren aurrean —batez ere, euri-garaia bada eta ur-jauzia sortu bada—, erabat txunditurik geratuko zarete: **Nerbioi ibaiaren arroila-iturburu ezin ikusgarriagoa**. Aho zabalik utziko zaituzten mirari hau barrutik edota behetik behatu nahi baduzue, mendatea berriro jaitsi ondoren, hartu eskumara **Delikarako bidea**.

Delikan gaudela, berau zeharkatu, zubi baten azpitik igaro eta herrixkaren amaierako atsedeneku-askaldegian aparkatu, errekaaren alboan. Hortik aurrera **Nerbioiren arroila ikusgarrian** barnera gaitezke, iturburuaren ur-jauziperaino.

B FITXA

GUIURIKO UR-JAUZIA



Nola iritsi:

Berriz ere Urduñatik pasatzen den errepidean eskuinerantz Gasteizerako norabidea hartu behar dugu. Tartean, lau-sei kilometrora, **arroila-paisaia ikusgarriak** behatzeko beste aukera bat izango dugu, eta pixka bat aurrerago, gure ezker aldean, Gorbeia ireki zabala ere agertzen hasiko zaigu.

Beti zuzen jarraituz, hiru bat kilometro egin, eta Guiuri-Gujulira helduko gara. Beste kilometro batera, berriz, kartel marroixka batek (Cascada de Gujuli) ur-jauzirainoko ezkerreko norabidea erakusten digu, 50 metrora dagoen aparkalekuraino. Herriko erdigunetxotik zein aparkaleku honetatik oso hurbil geratzen zaizue Guiuriko ur-jauzi eder-ederra. Ziur egon metro gutxi hauek oinez egiten badituzue, zuen edertasun-gosea asebeteko duela ikuskizunak, zalantzarik gabe.

Gasteizerako errepidean **Beluntza** izango da hurrengo gunea; handik 2 km.ra eskumara jo beharko dugu —kontuz ibili, zuzen jarraituz gero, autopistan sartuko gara eta—. Beste kilometro batean Murgiarantz jo beharko dugu eta, segituan, Ametzagaña zeharkatuko. Handik 1,5 km.ra **Murgia herrian** sartuko gara. Murgia Gorbeia Parkeko herririk garrantzitsuenak da eta Zuia bailara-udalerriko hiriburua; inguruko edertasunak erakarrak txalet eta bigarren etxebizitzetaz josia dago gaur egun. Hurbil dagoen **Oroko Andra Mari Santutegitik** izango duzue ikuspegi polita.

Murgiako sarreran ezkerrean, bidegurutzea baillitza, Sarriako eliza dago eta honen **ezkerretik** joko dugu **Gorbeiarantz**. Hortik aurrera, Gorbeiapeko zelai ederretara iristeko, errepidea zuzen segituko dugu, batzuetan sigi-saga baina dauden kartel ugarietaz errepidean, 2 km. egin eta arazorik gabe ailegatuko gara helmugara. Hortik aurrera, Gorbeia Parke Natural ederrean murgilduko gara eta mendia bera igo genezake, **Baias ibaiaren** bideari jarraiki.

Murgiara itzuli, eta berau igaroz, oraingoan Muruarantz abiatuko gara zuzen eta Gasteizerako norabidea hartu barik. Bidegurutze honetatik 300 metrora, berriz, ezkerrean jo beharko dugu Zarate-Gopegirantz. Horrela, 3 km.ra Manuerga, eta beste bi kilometrora Gopegi zeharkatuko ditugu, berehala ezkerrean Muruarantz jo aurretik. Gure helmuga **Muruako urtegia** da, errepide-amaieran **Gorbeia gaineko tontorreraino** eramango gaituen bidezidorra hasten delako.

C FITXA

NERBIOIREN ITURBURUA



Zer ikusi

Burgoseko begiratokitik ikusita (ikus. ibilbidea), urtearen zatirik handienean, urik ez daramanean, jada zeharo txundituta uzten bagaitu (guri Colorado-ko Arroila ospetsuaren zati bat gogorarazten digu)... zer esan garai euritsutan sortzen duen **270 metroko ur-jauzia** deskribatzeko? Hitzak ere soberan daude; ikusi eta entzun egin behar da.

Iturbururantz Delikatik naturaren indar erraldoi honen behealdeko ikuspegia lortu nahi badugu, Delika herriko askaldegi-atsedenlekutik abia gaitzke (ikus ibilbidea), eta ibaiaren sorbururaino jo. Kontuan izan **zenbat eta ur gehiago izan, —batik bat udaberrian— orduan eta zoragarriagoa izango dela ikustaldia; baina baita zailagoa eta arriskutsuagoa ere** —ibaia handitua behin baino gehiagotan zeharkatu beharko da—, eta alderantziz, urik izan ezean, bidea erraza bihurtzen da, baina ez du hainbeste merezi. Askaldegitik, ibaia ezkerrean dugula, ur-jauzitxo batzuk igaro, eta harrizko zubi bateraino ailegatuko gara; zeharkatu. eta beste aldetik arroilan barneratzen joango gara, bidezidorra ibaian bertan amaitzen den arte. Hortik aurrera dator zailtasuna, erreka behin eta berriz pasatu beharko baitugu ahal dugun moduan. Beste aukera bat, tarteko uharka eta ur-jauziak gertutik sumatu eta ikusiko ez badituzue ere, harrizko zubia igaro, eta goialdetik ibaiaren hasieraraino eramango gaituen saihezbidea hartzea da, azken unean ibaira jaitsiz.

D FITXA

GORBEIAGANEKO GURUTZEA



Zer ikusi:

Gorbeiako parkea erdi bizkaitarra eta erdi arabarra da. 21.000 Ha.ko naturgune honek izen bereko mendi multzoa biltzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura-gunerik handiena da. Gizakiak utzi du bere arrastoa **Neolitikotik aurrera, behintzat; horrela, bada**, antzinako artzain-kultura irudikatzen duten monumentu megalitikoaren artean ikaztegi edo kirikiñoen (gaztain-biltokiak) aztarnak ere topa ditzakegu.

Natura-parkea oso aberatsa da. **Zuhaizti zabala** (pagadiak, hariztiak, ameztiak...), **fauna ugaria** (oreinak, igarabak, sai zuriak, aztoreak...) eta **natur paraje ikusgarriak** gordetzen ditu: Itxinako karsta, Mairuelegorreta kobazuloa edo Guiuriko ur-jauzia, esaterako.

Gorbeiaganeko gurutzea Gorbeiagane, izenak dioen moduan, izen bereko mendizerraren punturik altuena da, eta bertan Euskal Herriko mendi-tontorretako **gurutzerik ospetsuena** dago. Leon XIII Aita Santuak XX. mendeari ongi etorria emateko, tontorrik altuenetan gurutzeak jartzeko agindua eman zuenetik, Gorbeiak **hiru** gurutze izan ditu. 1901ean inauguratu zuten lehena, baina hilabetera ekaitz batek bota zuen. 1902an bigarrena jarri zuten, baina 1906an haizeak berriz ere bota egin zuen. Azkenik, hirugarren eta azkenak, **18 metrokoa**, gaur arte eutsi dio.

Arabatik gora iristeko biderik errazena Gorbeia urtegian hasten dena da (ikus. ibilbidea). Parkeko bidezidorretako seinaleei jarraituz gero, 7 bat km. egin eta gailurrean izango gara. Goian 106 mendi seinalatzen dituen norabide-mahaia dago, Pirinioak ere ikusten direlarik.

Parke Naturalak: Batzuk hobetu beharra dago

Eremu natural babestuen premia eta egokiera gaur ez du inork eztabaidan jartzen, aisiarako aukera ederra eskatzen baitiete herritar guztiei. Ingurugiroaren aldetik eta fauna, flora eta egitura geomorfologiko berezien kontserbazio-baldintzen aldetik balio ukaezinak izateaz gainera, hor daude hezkuntzarako duten gaitasuna, sortzen duten sentsibilizazio ekologikoa eta ume eta helduentzat ematen dituzten olgeta-aukerak. Parke Nazional, Parke Natural, Bioesfera-Erreserba eta bestelako eremu babestu guztiak errespetatu behar ditugu, dute bizi garen inguru naturalarekin pertsona solidario bezala jokatzuz, ondasun urria baitira.

Erakunde publikoei dagokie, berriz, gizarteak eremu hauei ematen dizkien egiteko horiek betearaztea; ez alferrik leku horien funtzionamendurako erabiltzen diren aurrekontuak diru-kutxa publikoetatik ateratzen dira. CONSUMEReko zenbaki honetan frogatzen denez, Parke Natural guztiek azaltzen dute ingurugiro-interes handia, baina batzuek, hala ere, neurririk gabeko turismoaren edo nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako nahiz beste era bateko ustiategien eragin kaltegarriak jasaten dituzte.

Aztertutako 21 Parke Naturalek bisitariari eskaintzen dizkieten prestazioak hobetu beharko lituzkete. Batzuetan, irispideak egoten dira gaizki, oso nahasiak edo gaizki seinalizatuta, eta, beste batzuetan, berriz, ez da harrerako etxerik eta pertsonalik izaten, ezta Parkearen balio naturalak Interpretatzeko Gune edo material didaktikorik ere. Eta bat baino gehiago dira guardarik ez dutenak. Bestalde, badaude jendearentzako komunik edo aparkalekurik ez dutenak ere. Laburtuz, beraz, denetan ematen da interes ekologiko eta ludiko handia, baina horietako batzuk bisitariak asetzeko behar diren baliabideez hornitu behar dira.

Besterik gabe, jendeari uda eder bat opa izatea, hori bakarrik falta zaigu. Eta esatea ezen datorren irailean CONSUMERek 21 Parke Natural horiei buruzko gida praktikoa bat argitaratuko duela, parkera nola iristen den, ingurugiroaren aldetik zer interesgune dituen eta zein azpiegitura dituen azalduz.

IV. ERANSKINA

ARAMAIO herriaren deskribapenerako fitxa

Amurrio
Aramaio
Aramiñon

Biztanleak: 1.312 (1991ko errolda)
Azalera (km²): 73,3
Dentsitatea (bizi./km²): 17,9
Altitudea hirigunean (m): 301
Euskaldunak (%): 86
Ia euskaldunak (%): 9
Erdaldunak (%): 5

Orokorra Historia Artea Koadro sinoptikoa

Amurrio
Aramaio
Aramañon

Historia

Erdi Aroan **Biasteriko koadrilako** emandade eta ibar izan zen. Aramaiona Bizkaiko jauerrikoa izan zen, **Arteaga** eta **Muxika familiak** izan zirelarik ibarreko jaunak. XV. mendean Araba bamean gelditu zen. Erdi Aroan bandoen arteko borroka ugairen lekuko izan zen. 1443an **Pedro Abendañok** herria sartu, arpilatu eta erre egin zuen, baina Mendiako jaunak erre egin zionean ihes egin behar izan zuen. Maria Alonso Muxika, Aramaioko ibarreko oinordekoa, **Gomez Gonzalez Butroekoarekin** ezkondu eta jaurenia Butroekoan eskuetara pasa zen. Butroeko jaunak larderiez jokatu zuen eta herritarrek kezak aurkeztu

Orokorra Historia Artea Koadro sinoptikoa

Amurrio
Aramaio
Aramiñon

ARTEA

Ibarrako San Martin elizak oinplano oktagonala du eta hormak manposteriaz egunda daude. Portikoak harizko bi koloma ditu eta alboetan bi kanpandore truki. Sagrarioaren atea Alonso Idiakez Eutroekoaren oparia da; Erroman 1609an eginiko lana da eta Azken Afaria du gaitzat. Pietatearen taldean Ama Birjinaren taila aipatu behar da.

Orokorra Historia **Artea** Koadro sinoptikoa



Amurrio
Aramaio
Aramañon

INFORMAZIO OROKORRA

Arabako udalerria, Bizkaiko eta Gipuzkoako mugan (Gorbeia Inguruak); 1.312 bizt. (aramaioarak edo aramaioarak). I-an Atxondo eta Abadiño, E-an Arrasate eta Eskoriatza, H-an Leintz-Gatzaga eta Legutio eta M-an Legutio eta Otxandio ditu mugakide. Menditsua da eta baso eta lurre ugari ditu. Udalerriko ekonomi iharduera abeltzaintzan, nekazaritzan eta azken urte hauetan garatutako industria txikian (zurgintza, ehungintza, elikagaiak) oinarritzen da. Lanean ari den populazioaren erdiak baino gehiagok industrian dihardu eta laurdenak inguru zerbitzu-sektorean. Biztanle-kopuruak behera egin du.

Orokorra

Historia

Artea

Koadro sinoptikoa



V. ERANSKINA

Ikasleen laburpenak

1) Euskal Herriko lurretan aurki genitzakeen ur--jauzi guztien artean, zalantzarik gabe, **Nerbioikoa eta Guiurikoa** dira ikusgarrienetakoak. Biak Araban ikusiko ditugu, eta, gainera, bata bestetik hurbil samar. Mirari natural horiei probetxurik handiena ateratzeko, ibilbidea bera euri-garaian edo euria egin ostean burutzea gomendatzen dizuegu, eta Gorbeia gaineko gurutzea bisitatzeko garai aproposa izan daiteke.

Urduñako mendate izugarriera igotzen hasiko gara, tarteka panoramika zoragarriak eskainiko dizkigunera. Bidexka zabala txarto asfaltatua dago, bidezulo handiekin; beraz, oso kontuz joan behar da. Lehenbizi, ezkerrean, Urduñako bailararen ikuspegi izugarria izango duzue. Dena den, bidegurutzera itzuli eta kotxez abiatzen bazarete ere, iristean ikusiko duzuenaren aurrean — batez ere, euri-garaia bada eta ur-jauzia sortu bada—, erabat txunditurik geratuko zarete.....

2) Gure taldeak Nerbioiren iturburura eta Gorbeiko Parke Naturalera joatea proposatu nahi dizue. Izugarriko ur-jauziak ikusiko ditugu bertan, eta, batez ere, udaberrian da paregabea. Benetan gozatuko dugu, bertara bagoaz!

Hara iristeko, Urduñako mendate izugarria pasa, eta, lehendabizi, ezkerretara, Urduñako bailararen ikuspegi izugarria izango dugu. Bidegurutzera itzuli, eta handik bi kilometrora Nerbioi ibaiaren arroila-iturburu ederra ikusiko dugu, aho zabalik geratzeko modukoa.

Bidea ezkerretara hartu ordez eskuinerantz hartuta, arroila-paisaia ikusgarriak ikusiko ditugu.....

3) Proposatu nahi dizuegu Nerbioiren iturburura eta Gorbeiko Parke Naturalera joatea. Bi leku hauek Araban daude; zehazki, Bizkaiaren mugatik gertu, eta ur-jauzi izugarriak eta paraje natural ederrak aurkituko ditugu bertan; udaberrian, batez ere.

Hara iristeko, Urduñako mendatea pasa behar dugu, eta bide horretan ere zer ikusia izango dugu: adibidez, mendatea pasa eta ezkerretara Urduñako bailararen ikuspegi zoragarria, eta, bide nagusian aurreraxeago, Nerbioi ibaiaren arroila-iturburua ikusiko dugu, hau da, Nerbioi ibaia jaiotzen den lekua. Izugarri polita da, eta benetan merezi du ikustea.

Aurrera joanda, Gorbeia ikusten hasiko gara, eta kilometro gutxira, Guiuriko ur-jauzira hurbilduko gara.....

Irakaslearen balorazioak

A) Oso ondo zoaz. Testu interesgarria egiten ari zara, eta, gainera, saiatzan ari zara lokailuak eta horrelakoak erabiltzen. Zure ikaskideek ondo irudikatuko dute deskribatzen ari zaren paisaia.

C) Esaldiak hitzez hitz ari zara kopiatzen, eta ez diozu ondo erreparatu lanaren helburuari. Paragrafo bakoitzetik zerbait hartu beharrean, kontuan izan klasekoak animatzea dela garrantzitsuena eta paisaia gutxi gorabehera nolakoa den adieraztea.

B) Ondo ari zara ikaskideak animatzen testuan zehar, baina, agian, jatorrizko testuaren oso antzekoa da. Gogoratu helburua ez dela bakoitza bere aldetik joatea, autobusean denok joatea baizik, eta, beraz, ez da hain garrantzitsuena ibilbide zehatza jartzea.

VI. ERANSKINA

(1. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 00.24.17)

Aramaioko alkatearekin elkarrizketa

- Esataria Hiru arrazoi gaur Aramaiora joateko. Arabako herri horixe aukeratu dugu gaur hiru arrazoiren bila abiatzeko, herria bisitatzeko hiru arrazoi eskatuko dizkiogu alkateari, baina, aurrez, herri horren argazki txiki bat. Arabako iparralde menditsuan dagoen udal herria da Aramaio; iparraldetik, Bizkaiko Arrazola, Axpe eta Abadiñorekin egiten du muga, ekialdetik, Arrasate eta Eskoriatzarekin, hegoaldetik, Gatzaga eta Legutiorekin eta, mendebaldetik, Otsandioarekin. Aramaiok 1.500 biztanle inguru ditu eta gehienak euskaldunak dira, zehazki %94ak bizkaieraz hitz egiten du. Aramaioko ekonomia-iharduera nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza dira. Aramaiora joateko arrazoi bat baino gehiago badira, baina, guk betiko moduan, hiru emango dizkizuegu.
Herri horretako alkate da, Aramaioko alkate da Iñaki Nafarrate. Kaixo, eguerdi on deizula, Iñaki
- Alkatea Eguerdi on
- Esataria Hiru arrazoi nahi ditugu Aramaiora joateko, nondik hasi nahi duzu?
- Alkatea Beno nik hasiko nuke hasieran mendi-irteerakin ez! Adibidez, Aramaio kokatuta dago mendixeeekin, bueno, hor daz Anboto, Orixole, Izpizti eta, bueno, mendi pila bat e! Bisitetako eta, bueno, goiz bat edo une ondo pasatzeko.
- Esataria Antolatua izaten dituzue irteera horiek, ala norberak egin behar ditu bere kasara?
- Alkatea Ez, udaletxeak egin dauena da bideak markau eta ipini seinalizazioa eta horrek danak bideratu, jakin, informazioa eman, zenbat denbora tardetan dan. Gero atara da mapa bat horrek e! bideak ezagutu ahal izateko eta horrek mapak lortu leike bertan Aramaion tabernetan edo agroturismoko etxeetan be bai, dohain.
- Esataria A! Oso ondo, informazioa badago, orduan.
- Alkatea Bai, badago.
- Esataria Eta ezta izan behar mendizale aparta Aramaio inguruko mendietan ibiltzeko, ezta?
- Alkatea Ez, noski ezetz.
- Esataria Edozeinentzako moduko ibilbideak dira. Hori inportantea da e!, Eguraldi on xamarrarekin, beti ere, baina hor badaude paraje politak, nonbait, Aramaio inguru horretan.
- Alkatea Dudarik gabe
- Esataria Hori lehendabiziko arrazoia naturari lotua eta, bigarrena?
- Alkatea Bueno Aramaion arrazoi gehienak naturarekin lotuta daude ez, bigarrena izango litzateke agroturismoak ezagutu. Aramaion bertan daude hiru agroturismo eta bueno jentiek, hiritar jentiek ez dau ezagutzen ba zelan bizi diren baserritarrak eta bueno hori da okasio ona ezagutzeko gure Aramaioko baserritarrak nola bizi diren ezagutzeko euren ohiturak eta bizimoduak.
- Esataria Baina nekazal turismoko etxe horietan oraindik ere baserriak bizirik diraute, bertan bizi dira baserritarrak eta kanpotarrek lan hori ikus dezakete?

- Alkatea Bai, bai ikus dezakete, denak bizi dira bertan baserrixan
- Esataria A bai e!
- Alkatea Gero, Etxanen, horregaz batea dao errota bat antzinako errota bat errekuperatu egin zan orain urte gutxi dala —zortzi-hamar bat urte— eta dao oso polita. Eta orduan, auzo horretan, Etxanen, auzo alkateagaz egonez gero bueno aukera daukazue ba ezagutzeko errota hori e!
- Esataria Eta auzo alkatea beti egoten al da kanpotarrei erantzuteko prest?
- Alkatea Bai. Bera ez bada, beti etxeko baten bat beti egoten da prest, berak zabaltzen dau ure gero ure jausten da turbinan, turbina bueltaka hasten da, gero, horrekin batera, harriak eta prozesu nahiko interesantea da eta, gainera, ikusi leike dana prozesua.
- Esataria A! Oso ondo. Beste gauza bat Iñaki eta Aramaiora, ez dakit, egun batzuk pasatzera joan, landetxeak aukeratu eta hortik ze irteera gomendatuko zenizkiguke inguruetara?
- Alkatea Bueno hemen inguruan dagoz pila bat irteera bueno kostaldetik ordubete baino lehenago ba bertan gaude: Gasteiz bertan irteera oso polita da, Gasteiz parte zaharra eta Gasteiz ingurua ezagutu. Gero daukagu urtegiak Albiñan bertan Aramaioko terreno barruan dago eta bai Legutioko urtegia bueno hor egin leike urtegiaren aktibidade pila bat inguruan, zergatik hor daz, bueno, ba, zentro bat dago de piragüismo eta gauza pila bat ez ; gero parkie daz inguruen bertan Aramaion Urkiolako parkea eta, aldamenien, Gorbeixako parkea ez! hori da arrazoi bat Aramaio irteera polit batzuk egiteko.
- Esataria Dudarik ez dago oso naturaz betetako ingurua dela hori eta nahi duenak bestelakotik ere aurki dezakeela: hiriak eta mugimendua eta abar. Denboralditxo bat pasatzera joateko hortxe daude Aramaion nekazal turismoak ere, bertan baserritarrak bizirik eurekin batera bizimodua egiteko. Horiek orduan bigarren arrazoitzat hartuko ditugunak eta, hirugarrena?
- Alkatea Hirugarrenak Aramaioko auzoak ezagutu: Aramaiok dauko auzoak: Ibarra, Oleta, Aixola, Etxan, Gantza, Untzilla, Askua, Barajuen eta Ulibarri.
- Esataria Zenbat esan dituzu?
- Alkatea Bai, esan dot totalien bederatzi.
- Esataria Bederatzi auzo ditu herri honek?
- Alkatea Bailaran bertan daz zortzi, eta gero dao aparte, bailaratik aparte dao Oleta. Eta auzoak oso polita dira, gorde dau konstruziñue dauko lenoko tektologia eta oso polita da, oso ingurua eta oso ondo zainduta daz eta hor auzo artean dazen errepidetan artien ibiltzeko oso paseo egokiena die eta oso politak eta oso agradablie eta, gero, bueno ta gero bertako jentiekin hitz eginez gero ba bueno nik uste dot hori izango litzake ia ba bueno jentie oso oso atsegiñe eta oso amablea izaten da, bai.
- Esataria Oso ederki, ba hortxe daude, dohainik eman dizkigu Iñaki Nafarratek hiru arrazoi euren herriari bisita egiteko; alde batetik, natura, natura leku izugarria delako Aramaio inguru hori. Hor dauzka herriak mendi bat baino gehiago, udaletxeak bideak markatuak dauzka eta informazioa aterea dauka. Herriko tabernetan aurkitu daiteke informazio hori gainera. Bertan gelditzeko asmoa duenarentzat ere, badaude landetxeak hiru bai behintzat aipatu dizkigu eta edozeinetan lekua topa liteke. Aipatu du errota bat ere martxan ikus litekeena, Etxanen auzoan zen hori ezta, Iñaki?
- Alkatea Bai, holan da.

- Esataria Errota bat bertako auzo alkatearekin hitz eginez gero dena martxan jar litekeena, gainera, eta bukaerarako herriak dituen bederatzi auzo: ongi sakabanatuak daude Aramaioko auzo horiek e!
- Alkatea Bai, bai.
- Esataria Eta Aramaioko jendia ere bai.
- Alkatea Hori da!
- Esataria Bueno ba, asteburu honetan nahi izanez gero edo, beste batean hobeto etorri gero badakigu ze hiru arrazoi garrantzitsu dauden Aramaiora joateko. Eskerrik asko herriko alkateari, Iñaki Nafarrate.
- Alkatea Eskerrik asko zuei eta nahi duzuen arte.

VII. ERANSKINA

Osatu gutuna

02/4/12

Kaixo, Edorta,

Estibalitz naiz, _____ko zure laguna. Ni izango naiz zurekin trukea egingo dudana, eta benetan zu ezagutzeko irrikan nago. Kontatuko dizut gutxi gorabehera nolakoa den nire familia eta zu etortzen zarenerako pentsatu dugun plana.

Nire familia gustatuko zaizu. Gurasoak oso jatorrak dira, eta, batzuetan, errietan egiten didate, ez diedalako kasurik egiten, baina bromak egiten dituzte, eta horrela. Bi anai-arreba ditut; Koldo, nagusia, 15 urtekoa da, eta oso jenio txarra dauka. Ez zaio gustatzen bere gauzetan ibiltzea, baina ni saltsero xamarra naiz, eta, azkenean, builaka ibiltzen gara; baina lasai, zu etortzean, bakean utziko dut. Idoia da txikiena, 5 urte ditu, eta jolastu eta jolastu besterik ez du nahi. Ba, ez gaitu molestatuko!

Gure herria nolakoa den jakin nahiko duzu. Ba,

Baina, dena ondo ezagutzeko, txango batzuk prestatu ditugu, ea zer iruditzen zaizkizun!

Dena den, zuk beste zerbait egin nahi baduzu, esan lasai, eta egingo dugu. Gainera, ikusi behar da nolako eguraldia dugun!

Beno, ba, orduan, hori, antzeman dezakezu nolakoak garen. Nik ere jakin nahi nuke zerbait zuetaz eta zuen herriari buruz. Ea noiz bidaltzen didazun gutunen bat! Uste dut oso ondo konponduko garela elkarrekin.

Ba, hori, esandakoa. Besarkada bero bat, eta ea idazten didazun zuk ere!
Laster arte.

Esti

VIII. ERANSKINA

Pertsonaia mitologikoen istorioak

A FITXA: LEGAIREKO LAMINA

Behin batean, hemendik hurbil ardiak zaintzen ari nintzela, irrintzi batzuk entzun nituen. Iluntzen ari zuen eta laster gaua etorriko zen. Azkar ibili behar nuen etxera garaiz iristeko. Baina jakin-min handia nuen eta irrintziei erantzutea erabaki nuen.

Halako batean, nire aurrean neska batzuk agertu zitzaizkidan. Eder-ederrak ziren, ile zuri horikoak eta oso alaiak. Beraiekin dantzatzera gonbidatu ninduten. Nik baietz erantzun nien. Horrela, gau osoa dantzan eta kantuan eman genuen. Gero, Izar izeneko neskak, denetan ederrena zenak, etxeraino lagundu zidan.

Gutziz zoriontsua nintzen. Gauero, neska haiekin dantzatzera joaten nintzen eta, ondoren, Izarrekin itzultzen nintzen etxeraino.

Izarrekin guztiz maitemindu nintzen eta harekin ezkontzea pentsatu nuen. Baina, horretarako, baimena eskatu behar nion amari, noski.

Esan eta egin, amari basoko neska eder batekin ezkondu nahi nuela esan nion. Amari ez zitzaion berria asko gustatu. Bere ustez, basoan gauean ez da neska jatorrik ibiltzen. Amak susmo txarra hartu zion.

Neska hori agian lamina izango zela pentsatu zuen amak. Neskaren zangoei begiratzeko eskatu zidan. Hurrengo egunean, Izarren zangoei begiratu nien eta ahate-zangoak zituela konturatu nintzen. Egun hartan, oso triste, hitzik egin gabe egin genuen etxerainoko bidea.

Izar oso triste nengoela konturatu zen eta zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan, baina nik ez nion egia aitortu nahi izan.

Ez dakit zer egin, ez daukat ezertarako gogorik. Jateko gogorik ere ez daukat. Ni Izarrekin maiteminduta nago eta ez zait inporta ahate-zangoak izatea.

Atzo, ezin izan nuen gehiago eta Izarren bila joan nintzen erreka ondora. Hantxe aurkitu nuen bere ile luze ederra orrazten urrezko orrazi batekin. Bere lagunak ere berarekin zeuden.

Amak esan zidana kontatu nion Izarri eta ama konbentzitzeko zerbait egitea pentsatu dugu. Baina oraindik ez dakigu zer egin.

B FITXA: ANBOTOKO DAMA

Diego Lopez Harokoa XIV. mendean bizi izan zen. Ehiztari amorratua zen, asko gustatzen zitzaion ehiza. Basurdeen eta horrelako piztien atzetik ibiltzen zen beti.

Horrela, behin batean, hona etorri zen ehizan eta nire kantua entzun zuen. Liluratuta utzi nuen. Bere bizitzako emakumerik ederrena nintzela esan zidan. Nirekin maitemindu zen eta ni ere bai berarekin. Bera ere oso ederra zen. Orduan, ezkontzea erabaki genuen. Nik baldintza bat jarri nion, ordea: ezin zuen nire aurrean **aitaren** egin.

Ezkondu eta bere gaztelura bizitzera joan ginen. Bi seme-alaba izan genituen eta zoriontsuak ginen. Baina egun batean, ehizatik bueltan, basurde bat ekarri zuen. Basurdea afaltzeko prestatu genuen eta, mahaiari afaltzen ari ginela, bi txakur sartu ziren gaztelura. Bata, handi-handia eta bestea, txiki-txikia. Zaunka hasi ziren janari eske. Senarrak basurdearen hanka bat bota zien. Txakurrak elkarren artean borrokan hasi ziren. Txakur txikiak handia hil zuen eta basurdearen hanka berak jan zuen.

Senarrak harrিতuta, nahi gabe, **aitaren** egin zuen.

Orduan, nik alaba hartu eta hegan alde egin genuen. Alabarekin berriro Anbotora etorri nintzen. Urte batzuk pasatu eta gero, Diego preso hartu zuten Toledon. Gure semeak, Iñigo Gerrak, aita askatu nahi zuen, baina ez zekien nola. Orduan, laguntza eske etorri zitzaidan.

Nik zaldi zuri eder bat eman nion. Zaldiari ez zion ez jaten ez edaten eman behar. Zaldi magikoa zen. Orduan, gure semea zaldi gainera igo eta Toledora joan zen berehala. Han, aita askatzea lortu zuen eta, gero, biak etxera azaldu ziren zaldi zuriaren gainean.

C FITXA: MATEO TXISTU

Baserri batean, mutil bat bizi omen zen. Zazpi anaietan txikiena zen. Etxe hartan oso behartsuak ziren. Jaten emateko, aho gehiegi dago etxe honetan. Ni alarguna naiz eta ezin dut denentzat egin. Apaiz ikastera joan beharko duzu –esan zion amak Mateori.

Horrela, Mateo Txistuk apaiz ikasi zuen. Oso apaiz azkarra zen.

Deabruak Mateo tentatzea erabaki zuen, oso apaiz argia zela entzun baitzuen.

Infernura gonbidatu zuen. Mateo beste bi lagunekin joan zen.

Infernuan deabruak bere jakituria guztia irakatsi zien.

Hiru lagunak oso pozik zeuden.

— Hemen hamabost egun daramatzazue eta munduko beste edozeinek baino gehiago ikasi duzue.

Beraz, hemendik alde egin beharko duzue laster –esan zien deabruak halako batean.

— Gehiago irakatsi, mesedez –eskatu zioten hiru lagunak deabruari.

— Beste bi egun gehiagoz egon zaitezket. Baina baldintza bat bete behar duzue. Zuetako batek hemen gelditu beharko du nirekin betiko –esan zien deabruak.

— Konforme –erantzun zuen Mateok.

Baina azken egunean larri-larri zeuden. Orduan, Mateori ideia bitxi bat bururatu zitzaion.

— Zuek irten lasai nire aurretik, neu konponduko naiz deabruarekin esan zien bere lagunei.

Azken ikastaroa amaitu zenean, Mateoren lagunak isil-isilik irten ziren. Mateo ere lagunak atzetik abiatu zen.

— Heldu gogor atzeko horri –esan zuen Mateok.

Deabruak Mateok atzean zeramanari gogor heldu zion. Jakina, bere lagunetako bat zela pentsatu zuen.

— Orain nirea zara, ja, ja, ja! –deabrua barrez hasi zen.

Berehala konturatu zen ez zela Mateoren laguna, Mateoren itzala baizik. Deabrua izugarri haserretu zen.

— Madarikatu hori! Engainatu egin nauzu, zure itzala baino ez da! Larrutik ordainduko didazu hau! Bai horixe! –zioen oihuka deabruak.

Hiru lagunak barrezka hasi ziren.

Egun hartatik aurrera, Mateo itzalik gabe geratu zen.

Handik denbora batera, apaiz egin zen eta meza eman zuen.

Herrixka txiki batera bidali zuten. Herri hori mendian gora zegoen.

— “Hau bai herri aspergarria! Lau etxe besterik ez dago. Zer egin dezake hemen ni bezalako apaiz jakintsu batek?”, pentsatu zuen Mateok.

Hainbeste aspertzen zenez, egun batean, honakoa bururatu zitzaion:

— “Mendi hauetan ehiza ugari dago. Eskopeta eta hiru txakur erosiko ditut eta ehiza egitera joango naiz”.

Esan eta egin. Eskopeta eta hiru txakur erosi zituen: Pintto, Soli eta Ausart. Egun horretatik aurrera, meza amaitu bezain laster, bere hiru txakurrak hartu eta mendira joaten zen.

Orduan, deabruak ideia bat izan zuen. Mendekatzea erabaki zuen. Deabruak honakoa pentsatu zuen:

— “Aurrekoan ziria sartu zidan, baina oraingoan ikusiko du! Badakizue zenbat gustatzen zaion ehiza.

Meza ematen ari denean, bere aurrean erbi batzuk jarriko ditut. Baietz joan erbien atzetik!”.

Hurrengo igandean, Mateo meza ematen ari zen. Herriko jende guztia belaunikaturik zegoen aldarearen inguruan. Mezaren erdian zeudenean, txakurren zaunkak entzun ziren.

— “Horiek nire txakurrak dira. Ehiza aurkitu ote dute? –pentsatu zuen Mateok-. Honantz datoz, erbi baten atzetik datozela dirudi. Bai, bai, seguru erbi bat dela, eta ni hemen meza ematen. Erbien atzetik joan behar dut nola edo hala”.

Aldarearen erdian, Mateok ezin zuen errezatu ere egin. Bi aldiz, oker esan zituen bere otoitzak. Eta orduantxe bertan, erbi izugarri bat sartu zen elizaren atetik, eta hiru txakurrak atzetik.

— “Hau da hau erbi puska, alajainkoa!”, pentsatu zuen Mateo Txistuk.

Zoro baten pare, meza emateari utzi eta elizako jantzi eta guzti, erbiaren eta txakurren atzetik korrika hasi zen. Erbia ia harrapatuta zeukan, eskopetarekin apuntatu eta orduan...

— Ja, ja, ja –entzun zen deabruaren ahotsa-. Zer moduz, Mateo? Meza eman beharrean, erbiei jarraika eta horrela, eh? Oraingoan ederki izorratu zaitut, ja, ja, ja... -barre eta barre ari zen deabrua.

— Baina, ni, ni, zera... -hasi zen Mateo Txistu.

— Zu, zer? Apaiz ona zaude zu! Irabazi egin dizut. Tentatu egin zaitut eta irabazi egin dizut. Zureak egin du! –esan zion deabru maltzurak.

— Barkatu... -esan zion apaizak.

— Zu bezalako apaiz tranposoentzat ez dago barkamenik. Orain ikusiko duzu –esan zion deabruak. Bi besoak jaso zituen eta konjuro hau bota zion: —Zirrizt, zarrast, zizti, zazta, zagt. Hemendik aurrera, egin duzuna zigortzeko, mendi hauetan gelditu gabe ibili beharko duzu. Gaurtik aurrera Mateo Txistu deituko dizute.

Ondoren, deabrua ezkutatu egin zen. Une berean, haize izugarri batek eraman zuen Mateo. Urrutira, hiru txakurren zaunkak entzuten ziren erbiaren atzetik.

Ordutik aurrera, Mateok, haizetan bildurik, geratu gabe jarraitu behar izan ditu. Beti geratu gabe, beti, beti, beti...

Hori gertatu eta gero, inguru haietan, hamabost eguneko ekaitz handia izan omen zen.

D FITXA: HERENSUGEA

Kakueta aspaldi zazpi buruko suge handi bat bizi izan zen. Herensuge izugarria zen. Batzuetan, sutan jarrita, itsaso aldera joaten zen airean.

Jende guztia izaturik bizi zen. Hemengo biztanleek agindu beldurgarri bat bete behar zuten urtero: neska gazte eder bat eman behar zioten. Bestela, denak akabatuko zituela esan zien herensugeak.

Hori zela eta, urtero herritar guztiak biltzen ziren eta zozketa egiten zuten. Horrelaxe erabakitzen zuten zein neska eskaini piztia hari.

Urte batean, erregearen alaba izan zen zoritxar hura izan zuena.

Neska gizajoa Kakueta inguruko zuhaitz batera gogor lotu zuten. Ez zuen inork ezer esan, ez zen inor gelditu laguntzera. Han zegoen bakar-bakarrik, herensugeak noiz jango zain.

Erregeak herensugea hiltzen zuenari, sari gisa, alabaren eskua emango ziola esan zuen. Baina han ez zen inor agertu.

Halako batean, inguruan zebilen artzain batek ikusi zuen neska eta oso arraroa egin zitzaion dena. Ezin zuen ulertu nola lotu zuten horrelako neska ederra zuhaitz batera.

Mutilak neska askatzea erabaki zuen. Askatu ondoren, neska bera han lotuta egotearen zergatia kontatzen hasi zitzaion artzainari. Gero, neskak alde egiteko esan zion, herensugeak irentsi egingo zuela eta. Baina artzainak ez zion jaramonik egin eta hantxe geratu zen.

Bat-batean, Kakuetatik hots ikaragarri bat ateratu zen. Herensugea zen, sua zeriola.

— Beltz, heldu horri! –agindu zion artzainak txakurrari.

Herensugea eta txakurra borrokan hasi ziren. Oso borroka gogorra izan zen. Harrigarria izan arren, txakurrak herensugea txiki-txiki egin zuen.

Artzainak mihia moztu zien zazpi buruei eta printzesaren gonari zazpi zati egin eta bertan bildu zituen mihiak. Ondoren, zorroan gorde zituen.

Gizon gaizto batek hau guztia ikusi zuen, zuhaitz batera igota egon baitzen. Gizon gaizto honi ideia bat bururatu zitzaion: erregea engainatuko zuen eta alabaren eskua berak eskatuko zion. Herensugearen zazpi buruak hartu zituen eta erregeari eman zizkion.

— Neu naiz zure alabaren salbatzailea. Neuk hil dut herensugea. Hortaz, zure alabarekin ezkonduko naiz –esan zion gizon gaiztoak erregeari.

Ezkontzako ospakizunak prestatzen hasi ziren. Ezkondu baino egun bat lehenago, afari bikaina eskaini zuten. Jende asko gonbidatu zuten. Erregea, alaba eta salbatzaile faltsua mahaiburuan jarri ziren.

Artzaina ere txakurrarekin afaltzera hurbildu zen. Baina ez zen inor konturatu.

Bat-batean, artzainak txakurrari erregearen platera eramateko agindu zion. Txakurrak agindutakoa bete zuen.

— Nor zara zu? Zergatik egin dit hori zure txakur horrek? Ikusiko duzu! –esan zion erregeak artzainari, guztiz haserreturik.

— Txakur honek hil zuen herensugea. Zure alabarekin neuk ezkondu behar dut -erantzun zion artzainak erregeari.

Jendea zur eta lur zegoen. Denetarik entzuten zen. Salbatzaile faltsuak zazpi buruak erakutsi zizkion hango jendeari.

— Argi dago neuk hil nuela herensugea –esan zuen gizon gaiztoak.

— Bai zera! Buru horiek ez daukate mihirik, neuk moztu nielako. Oraintxe ikusiko dituzue –esan zuen artzainak eta zorrotik atera zituen. Artzainak salbatu zuela esan zuen printzesak eta elkarrekin ezkondu ziren. Ordutik, ez dugu herensuge gehiagorik ikusi Kakueta aldean.